

uk

163. zenbakia / 2009ko urriaren 5a



Kiaia,

Zer modu uan? Nik primeran pasatu dut, baina arin berriro ere nire ikaskide gutxiak ikusteko laguntza goga dut, ikasketakero itaalfako goga. Bera... ikasketakero jokatutikina :)



Badakizu zer? Leirek esan dit aurtan bere amak ere ikasi egingo duela, klasera joango dela. **EUSKALTEGI BATEAN EUSKARA KASKO DUELA** esan dit, Udalek gurasoei laguntzen diela, edota ez dakit zer kontu. Bera, gaur arratsaldean bertan amari eta aitari izena emateko esango dlet. Hurrela, euskara ikasko dute eta bitara joan baina lehen ipuin bat kontatuko dicate, elkarrekin abestuko duzu, etxeko lanekin lagunduko dicate.

Aizu, **ZERGATIK EZ DIOZU ESATEN ZURE AMARI** Lagundak direnez, elkarrekin joan daitezke eta hurrela, euskaraz hitz egin dezakegu haiekin. Auzoan lagundu ere egin diezakegu. Tira, esakizu! Aps! Gaur arratsaldean esango diegu. **ZENA EMAN DEZATELA EUSKARA IKASTEKO**. Eta tranparik ez, e!

Badakizu zer esango duten? Bada, nagusiei ez diegula ulertzen, oso lanpetuta daudela, orduetarik ez dagoela... Bera, gaur arratsaldean esango diegu euskaltegi batera joateko galdetzeraz eta izena ematera. Bestela, geuk ere esango diegu ez gara musikara joango edo ingelesera, edo eskulaneetara edo judora, edo konforme! Ikusiko duzu, joan egingo dira eta **PRIMERAN** pasatuko dute.

Hona hemen Leirek eman dizkidan telefonoak eta helbideak, eman amari eta aitari.



EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK:

IKASLENTZAT DIRU-LAGUNTZAKO

- 12 urte edo gutxiagoko seme-alabak, 18 urteko gurasoentzat.
- 18 urte gutxiagoko edo haurrek 18 urteko 18 urteko haurrek familiarentzat (aita-amaentzat...).

BAIDINTZAK

- Ikasleak ezin izan duen gutxienez 12 urteko seme-alabak izan behar du.
- Ikasleak, ikasleak homologatutako euskaltegietan egin behar du.

AGURBIDEAK:

Euskaraz Ikasleentzat (Diru-laguntza) 94 400 00 00, euskaraz.ikasleentzat@getxo.net
Gutxi Euskarazentzat (Laguntza) 94 400 00 00, euskaraz.ikasleentzat@getxo.net
Laguntza Auzo Euskarazentzat (Laguntza) 94 400 00 00, euskaraz.ikasleentzat@getxo.net
L.A. Auzo Euskarazentzat (Laguntza) 94 400 00 00, euskaraz.ikasleentzat@getxo.net



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Maitane Nerekan

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarrinaga, Maitane Nerekan,
Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jokin Aspuru, Jorje Perez, Bittor Egorrola,
Borbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte

MARRAZKILARIA: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Etxe argala, Algorta.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako Las Mercedes eliza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Josu Soldevilla.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Erdi Aroko azoka Algortan.
28. ARGAZKIA. Hegazkin-bikia Ereagan.
30. BERBETAN. Elena Irureta.
34. FOTOGRAFIA. GETXOPHOTO.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Frantziar zinea Leioan.
43. MUSIKA. IV. BUM jaialdia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Haur literaturan barriak. Erreseinak.
45. KIROLAK. Getxoko emakumeak kirolean.
46. ELKARRIZKETA. Josune eta Paula Alegria, *Novelle*.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. El Herbolario Las Arenas.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Areetako *Accion Catolica* futbol taldea, 1947.
54. AITORMENAK. Joseba Solozabal.

Azala: GETXOPHOTO



30 Elena Irureta

Berbetan

Euskal aktoreen panorama
erakutsi digu; hastapenak eta
egungo egoera.



11 Josu Soldevilla



54 Joseba Solozabal

MÉGANE EMOTION

10.600€*



1.000€-ko
deskontua
erakunde edozein
biktimari
erakunde*

ZUK BENA NAHI DUZULAKO

RENAULT OCASION

* PVP 1000€-ko gaitasun duzula. Bereziki 1000€-ko gaitasun duzula. ** 10 urte baina gehiagoko bota bota.

011 30 13 31

www.bikimobil.com



Leihatila

> Pedro García Larragan

Zergak

Estatua espainiarrean bost ogasun ezberdin daude: zentrala, Bizkaikoa, Gipuzkoakoa, Arabakoa eta Nafarroakoa, eta bakoitza subiranotasun osoz. Azalpena garrantzitsua da. Zergak altxatzeko edo jaisteko gaitasuna osoa eta soila dauzkaten bakarrak foru aldundiak baitira. Eusko Jaurlaritzak Aldundietatik jasotzen du dirua, eta horregaz konpondu behar. Ez dago ez agintzerik ez besterik. Hori dela eta, zergen gorakadaz edo jaitsieraz berba egiten dugunean (BEZ kenduta) Foru Aldundiez ari gara. Orain, krisiarengatik ogasunen kutxa hutsik dago. Egoera honen aurrean, zer da onena? Zergak gehitzea eta kutxetara diru gehiago helaraztea, edo Jaurlaritza eta Foru Aldundien gastuak murriztea? Kutxa bete gura badugu, badakigu zelan egingo duten: zure eta nire diruagaz...eta soberan daukagunez...Aitzitik, gastuak murriztearen alde bagaude, gizarte programa garrantzitsu batzuk baztertzeko arriskua dago. Zein da gure aukera? Zein gure agintariena? Hor dago koxka...eta kezka. Erabaki batek edo besteak bozka jariora eragin dezake. Interesgarria.

Iritzia

Aldizkari hau sortu zenetik Jokin Aspuru izan dugu zuzendari. Aurrerantzean Maitane Nerekanek izango du ardura hau. Hona, Jokin Aspurren gogoeta.

Quark-etik InDesign-era

Datu zehatza jakin nahi nuen eta ezin gogoratu. Domeka goiza hartu dut nire aldizkari zaharren kutxa bilatzeko. Bizarra Lepoan izenarekin argitaratu genuen lehenengo alea topatu dut; ez nekien non, baina urregorri moduan gordetzen nuen bilduman. 1995eko apirilaren 6ko data dauka aldizkari horixkak. Staffean, Konrado Mugertza eta nire izena azaltzen dira zuzendari. Konrado

**«Ilusioz
gainezka
sortutako
proiektu
amateurra»**

Mugertzak, institutuan nire irakaslea izandakoak hain zuzen ere, aldizkari hura abian ipintzen lan handia egin zuen gu ginen talde gaztearekin batera. Berak irakatsi zidan aldizkaria maketatzeko beharrezkoa zen Quark X Press programa erabiltzen, ia hamabost urtez nire eguneroko lantresna izango zena. Staffa irakurtzen segitu dut, eta ohartu naiz garai hartako lantaldekoen artean Bittor Egurrola eta biok baino ez dugula behar egin eten barik aldizkarian. Bittorrek *Flash back* bere atal arrakastatsura-

ko idazmakinan osatutako testuak (tipexegaz zuzenduak sarritan) ekarri izan ditu erredakziora urte hauetan guztietan sekula huts egin barik.

Horrenbeste denbora igaro dela sinetsi ezinik, 1995eko apirilaren 6 hartatik gaur egun arte zer gertatu den, zer aldatu den galdezka ibili natzaio nire buruari udazken hasiera honetan. Zenbaezinak dira aldaketa horiek, jakina; baina aldizkariari dagokionean behintzat, ilusioz gainezka sortutako proiektu amateurra errealitate profesionala dela gaur egun izango litzateke aldaketarik azpimarragarriena; ekonomikoki estu eta larri ibili arren, aurrera doan bost behar-gin dauzkan enpresa txikia. Eskualdean euskara komunikazio tresna baliagarri bihurtzea eta euskararen erabilpena sustatzea ziren gure helburu nagusiak. Bistan denez, ez dugu eskualdea nahi bezala euskalduntzea lortu. Baina gauza oso garrantzitsua lortu dugu: gure mundua euskaldundu dugu, euskaraz lan egin eta euskaraz bizi izan gara urte hauetan guztietan. Bestetik, aldizkariak berak ia hamabost urtez ikusi du argia, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Eskualdearen eguneroko bizitzaren ikuskera, errealitatea edo bizitza ulertzeko eta jasotzeko modua gure orrialdeetan islatzen ahalegindu naiz lankideekin batera urte hauetan. Orain Maitane Nerekan zuzendari berriari eta bere inguruko lantaldeari egokitu zaio ariketa hau, begirada hori eskaintzea. Ni ere hortxe inguruan ibiliko naiz, jakina, baina beste zeregin batzuetan.

Bitorrek bere kronikak e-mailez bidaltzen ditu gaur egun eta Quark zaharkitua erabili barik Indesign berriarekin maketatuko da aldizkaria aurrerantzean, jakinarazi didatenez. Eta web orrialdea laster abian jarriko ei dela esan dit zuzendari berriak, eta aldaketak egongo direla aldizkarian. Ederto sentitzen naiz, izugarri pozten nauelako ardura hauek guztiak hain konfiantzazko eskuetan utzi ahal izateak, lantalde gaztea, ideia berriekin datorrena... Bizitza bezala, aldizkaria bera berritzen delako sentitzen naiz ondo, bizitza aurrera doalako eta UK ere bai.

gu geu**Aldaketak, trantsizioa**

Aldaketak zailak izan ohi dira. Trantsizio prozesua dakar beti; eta trantsizioak aldaketa asko ekarri ohi ditu (ezin dugu hau baieztapen unibertsal bezala aurkeztu, zoritxarrez ez baita beti horrela izaten). Beraz, amaierarik bako katea da: aldaketa=trantsizioa=aldaketa. Zaila dela esaten dugu, aldatzeak atzean zerbait uztea eta barria (eta, gehienetan ezezaguna) den zerbaiti heltzea suposatzen duelako. Gure gizartea, XXI.mendekoa, etengabe aldatzen ari den gizartea omen da eta horrek estresa sortzen du. Datorrenari egokitu behar gatazko, oraindino aurrekoa ondo menperatzen ez dugunean.

UK-k aldaketa asko bizi izan ditu bizirik daroan ia 11 urte hauetan. Batzuetan onerako izan dira; beste batzuetan barriz, txarrerako (gutxienetan espero). Baina, ziur asko, 163. alean gertatutakoa, herri aldizkari honen historian orain arte gertatutako garrantzitsuena da. Alboko artikulua irakurritz gero jakingo duzu zertaz ari garen. Dena den, kapitaina bela-ontzia utzi eta pirata ontzian itsasoan beste aldera joan bada ere (Ron botila aldean eroan duela), tripulazioak badaki zein portutan ibiltzea gustuko duen, eta ez dio begia gainetik kenduko (onerako zein txarrerako hau ere). Badakigu non zauden Jokinzito!

UK-ko lantaldea

Jokin Aspuru
(UK aldizkariaren sortzailea)

[irudia]



ALGORTA, 2009KO IRAILA

Ezinezko arkitekturak? / Garai bateko ezinezkoak egingarri bihurtzen dira ondorengo urteetan; berbarako arkitekturan, forma pentsa ezinak eraikitzen dira urteen poderioz. Pentsamenduak sortzeko ahalmena badu, gizakiak egiteko gaitasuna daukala sinesten dute batzuk. Sarri zuzen dabiltzala erakusten dute. Utopiek arkitekto asko ez dituztela itsutzen argi dago, eta ausardia apur bategaz, utopiai gainditzea lortzen dute. Gutako gehiagok noizean behin arkitekto jakin horiek legez egingo bagenu... Zenbat amets ez lirarteke eraikiko? Zenbat utopia desagertuko? ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

mantangorri_{berria}

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

azaroaren **10**etik aurrera
larunbatetan DVD bat

1. Lagundu arraina naiz
2. Heldi 3. berriro mendian
3. Betizu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa
6. Prop & Berta

berria
Lau herri eremu mistoan sartuko gara
daude PSN eta CDN, baina gehiago ez

+ 4,90 €

**Aukera ezazu,
BIZI euskaraz**
berria

HARPIDETZAK,
BILDUMA OSOA **26 €**
ESKARIA EGITEKO: 943 39 43 45,
harpidetza@berria.info
edo www.berria.info

Babeslar:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Elkarrekin euskaraz
Herriak elkarrekin euskaraz

[lehen]



GETXOKO UDAL LEBURUTEGIA

[orain]



ASERMENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / AREETAKO LAS MERCEDES ELIZA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

[talaia]

uribitakora > eguraldi kaxkarra



2009ko iraila, Algortako Portu Zaharra

Testua: **Miren Loizaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Errota zahar maitia

Gehiegitan garenez
EKlren gatibu
hodei beltzek etxean
uzten gaituzte gu;
gaur atera naiz eta
portura azaldu,
zeru estali honek
xarma ederra du.

Nahiz bestaldean asko
lantegi(e)tan dauden,
ni lasai asko nago
gauzak nola diren...
eguna pasatuko
nuke, holan hemen;
"pause" sakatu eta
momentua eten.

Begiak itxi eta
olatuen menpe,
arnas sakon hartuta
birikiak bete,
kresal usain hezeaz
asetu naiteke,
bakardadeaz ere
gozatu daiteke.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalca/zenb..... Herria.....

e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa. 48991 Getxo

uk@aldizkaria.biz

tf. 94 491 13 37

bertsolaritza > Uribe Kostako hiru bertsolari Txapelketa Nagusia



Bilbon aurkeztu zuten 2009ko Txapelketa Nagusia

Urriaren 3an abiatu da XV. Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta abenduaren 13an jarriko diote txapela irabazleari, Barakaldoko BEC-en. Uribe Kostako hiru bertsolarik parte hartuko du, hirurak algortarrak. Jone Uriak kantatu du lehena Zestoan, urriaren 3an. Xabi Paya izango da hurrengoa, urriaren 17an, Uztaritzen. Fredi anaia, barriz, hilaren 24an arituko da, Laudion. Lehen kanporaketak pasatuz gero, orain lau urteko finalean aritu zirenen aurka egin beharko dute: Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Sustrai Colina. Abenduaren 13an gehituko zaie 2005eko txapelduna, Andoni Egaña. Bosgarrena lortuko al du? Hori dena ikusteko sarrerak aurrez internet bidez erosi behar dira, www.bertsosarrerak.eu atarian, eta saio egunean bertan txarteldegian. Informazio gehiago: www.txapelketanagusia.eu. ○

getxophoto > Alfredo Divassonen argazkiak Usategi tabernan



Irailaren 17an inauguratu zuten erakusketa

Urriaren 12ra arte Egon badago aukera Getxophoto erakusketa ikusteko. Horietako bat Usategi tabernan. Alfredo Divassonen lan berezia da, argazkiak hiru dimentsiotakoak dira eta. Zehazki, teknika anaglifoa erabili ditu: elkarren gainean jarritako argazki bi dira, tarte eta konbergentzia egokiagaz ateratakoak, eta bakoitza kolore osagarri bigaz *tindatuak*. Ikusi ahal izateko argazki bakoitzaren koloreetako filtroak dituzten betaurrekoak erabiltzen dira, begi bakoitzak dagokion irudia baino ikus ez dezan helburuagaz. Getxophotok Alfredo Divasson bera gonbidatu du (1962, Eibar), 3D eta lurpeko argazkilaritzan aditua, Getxorik klasikoena irudika dezan, teknika xume baina harrigarri hau erabiliz. Teknika azaltzeko tailerra ere eskaini du. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehen garaiak...



...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

gorrondatxe > Ypresiar eta Lutetiar aroen arteko geologia eredu



Orain 50 milioi urteko Lurraren historia ofiziala emango dute Azkorriko labarrek

Gorrondatxe hondartzako labarretan 50 milioi urteko historia irakur daiteke. Nazioarteko Estratigrafia Batzordeak horregatik izendatu du Ypresiar eta Lutetiar aroen mugako munduko estratotipo, eta ondorioz, duela 50 milioi urte inguruko Lurraren Historiako bertsio ofiziala Gorrondatxeko hondartzan idatzirik dagoena izango da. Espainia, Tunez, Kuba, Mexiko eta Txileko, lagin geologikoak baino hobeak dira Gorrondatxekoak, Estratigrafia Batzordearen ustez. Aurkikuntza oso garrantzitsua da; izan ere, etorkizuneko gertakariak auresan ahal izango dituzte hari esker. Gainera, *Bladkites Inflatus* fosila ere topatu dute Ypresiar eta Lutetiar garaiko tarte horretan, milimetroaren milarena neurtzen du eta mikroskopia bereziaz ikusi beharra dago. Euskal Herriarentzako are garrantzitsuagoa da izendapena, bigarren aitortza geologikoa delako, Zumaiakoagaz batera. Munduko altxorra Uribe Kostan. ○

getxo > ontzi erraldoien ibilbidean sartzea lortu dute



Getxoko Kirol Portua

Maiz ikusi ditugu itsasoan bidaia egiten dituzten ontzi erraldoi horietakoak herriko Kirol Portuan azken urteotan. Baina bisita egitera soilik geratu dira Getxon. Gauzak aldatzera doaz, ordea, hurrengo urtetik aurrera herritik urten eta herrian amaituko diren bidaia antolatzen hasi dira eta. Zehazki, operazio-guneen artean barneratu du Getxo Ibercruces taldeak, Europa iparraldean egiten dituzten bidaietan. 2010eko irailaren 3an eta 10ean urtengo dira lehen bidaia, *Grand Mistral* ontzian, eta zortzi egun iraungo dute. Le Havre (Frantzia), Dover (Britainia Handia), Ikmuiden (Amsterdam) y Brujas (Belgika) hiriak bisitatuko ditu. Ontziak 1.700 bezerorentzako eta 670 lankiderentzako lekua izango du, zortzi taberna eta hiru pizina; eta txartelik merkeena, 462 euro. ○

cianoplan
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



[erretratua]



“Gazteak etorkizuna dira eta abesbatza bizirik mantendu gura badugu euren beharra daukagu”

Josu Soldevilla > Biotz Alai abesbatzako zuzendaria

Jaiotzez orduñarra da eta bizitokia Bilbon du; hala ere, urtariletik Getxoko abesbatza mitikoena zuzentzen du Josu Soldevillak. Musikagaz estu lotutako bizitza izan da berea; zortzi urte zituela hasi zen arpegio, sostenitu eta bemolakaz jolasten eta ordutik konpositore, abesbatza zuzendari, organo jotzaile, musika irakasle eta bakarlari moduan ibili da: *“Musika barruan daroat”*. Orain hiru urte, Biotz Alaigaz behar egiteko aukera eman zioten: *“Orkestraz lagundutako muntaia zuzentzeko proposamena luzatu zidaten. Oso gustura gelditu ziren eta horregatik etorri da gainontzekoa”*. Lan gogorra egiten ari da: *“Eurek pentsatzen zutena baino gogorragoa kasu batzuetan; ariketak egiten ditugu: arnasketa, bokalizazioa... Horren guztiaren garrantziagaz jabetzen ari dira. Uzten didaten neurrian, hobera egin gura dut”*. Soldevillak argi dauka Biotz Alai abesbatza baino gehiago dela getxoxtarrentzat: *“Herria eta abesbatzaren arteko harremana 14 urte nituenetik ezagutzen dut. Garai hartan Trinitarios elizan organoa jotzen nuen; behin, Biotz Alaikoak etorri eta horrela esan zidaten: <Mutiko ken zaitez, guk abestuko dugu eta>”*. Harreman hori gazteak erakartzeko erabili behar dela uste du: *“Etorkizuna dira eta abesbatza bizirik mantendu gura badugu euren beharra daukagu”*. Gazteak, horra proposamena!. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Gobela ibaiko urek zer esana

eman dute barriro irailean. Bai **auzokideek**, baita **Udalak** ere, euren **ezonegona** adierazi diote **Uraren Euskal Agentziari**; esandakoaren arabera, lanen lizitazio-prozedura abian da

Joan den irailaren 16an botatako euriak auzokideen eta Udalaren kezka piztu zuen barriro ere. Imanol Landa alkateak eta Ura Agentziako zuzendariak egindako bilera ostean kaleratutako prentsa oharren arabera, lanen lizitazio-prozedura irailaren 30ean kaleratu behar zen.

Ziur asko lerro hauek irakurtzen dituzunerako, datu barriak egongo dira Gobela ibaiko lanen inguruan. Izan ere, irailaren 16an botatako ur zaparradek (23 litro metro koadroko ordu bi baino gutxiagoan), alarma gorria piztu zuten barriro ere eta mobilizatzaera eroan zituen bai auzokideak, baita Udal Gobernu Taldea ere.

Alde batetik, Imanol Landa Getxoko alkatea Iñaki Urrizalki URA Uraren Euskal Agentziako zuzendariagaz bildu zen irailaren 17an. Bileran, Gobela ibaia bideratzeko lanen egoeraren inguruan egin zuten berba. Erakunde biek lan horiek guztiz premiazkoak direla azpimarratu zuten, eta bilkura amaitutakoan kaleratutako prentsa oharrean, lanen lizitazio prozedura abian dela eta irailaren 30ean Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) publiko egingo zutela adierazi zuten (UK-ko ale hau inprentara aipatutako eguna baino lehen bidali zenez, ezin dugu lanen lizitazio-prozedurari buruz informazio gehiago eskaini).

Bestalde, Gobela ibaia Kaltetuen Elkarteko lagunek ekimen ezberdinak ero-



2008ko ekaineko uholdeetan hartutako irudia

an dituzte aurrera, euren ezonegona adierazteko. Auzoan bertan zein Algotako Geltokia plazan mobilizazioak burutzeaz gain, bisita gidatuak egin dituzte Gobela ibaiaren inguruan, gertatutakolari buruzko informazioa herritarren

«Auzokideek bisita gidatuak egin dituzte Gobela ibaiaren inguruan, herritarrak informatzeko»

artean zabaltzeko. Honez gain, Patxi Lopez lehendakariari eta Pilar Unzalu Ingurumen sailburuari eskutitza bidali zioten. Horretan, Gobela ibaia bideratzeko egitasmoa *“bulego baten tiraderan 17 urtez lo egon den proiektua”* dela esateaz gain, Getxoko Udaleko alderdi guztien eta auzo elkarten artean lortutako

adostasuna goraipatu eta lanen lizitazio-prozedurak duen urgentzia azpimarratu zuten. Eusko Jaurlaritzari eskatu diote gaia behar bezala lantzeko, neurri urgentek hartuz, eta Gobela Ibaia Egokitze Plan Orokorrari merezi duen arreta eskainiz.

Gobelako auzokideek, 2008an sortutako web gunean, Lehendakariari eta Ingurumen sailburuari bidalitako eskutitza, zein gaiagaz zerikusia duten hainbat dokumentu jarri dituzte eskuragarri; horien artean, ibaiaren bideratzearen kronologia biltzen duen dokumentua dago. Gainera, gaiaren inguruan iritzia emateko txoko berezia eta kaltetutako auzokideentzako informazio zerbitzua prestatu dute. ○

Informazio gehiago:
www.encauzarelgobela.com

13 euskal konpainien

lanak Antzerki Jardunaldien barruan



Ellas bailan solas antzezlanaren irudia

Udagoiena zuhaitzetako hostoak erortzeko eta lurra kolore gorri ederrez moztzeko garaia izateaz gain, kultur ekimenen loraldiaren garaia izaten da. Getxon adibidez, Antzerki Jardunaldiak ematen diogu ondo etorria uda osteko urtaruari. 27. edizioa da aurten urriaren 9a eta 24a bitartean ospatuko dena. Guztira 13 ikuskizun eskainiko dira 3 eszenatoki ezberdinetan: Areetako Andres Isasi Musika Eskola, San Nikolas plaza eta Algortako Geltokia plaza. Publiko guztientzako lanak aukeratzen saiatu dira Getxoko Kultur Etxeko lagunak, euskaraz zein gazteleraz.

Musika Eskolan nagusientzako antzezlanak egongo dira: *Lo que ellos ignoran de ellas: Good sex, good day* (Erre Produksioak), *Haritzaren azalera zeha-*

tza (Kukubiltxo), *Juana creo la noche* (Théâtre sans Frontières). Nagusientzako programazioa bestalde, kalean ere aurkituko dugu. Algortako San Nikolas plazan *Otsoko* (Gaitzerdi) eta *Terapia?* (Markeliñe) antzezlanak ikusi ahal izango dira; Geltokia plazan ordea, *El concursazo* (Trapu Zaharra), *Ellas bailan solas* (Pikor teatro) eta *On egin, mon amour* (Teatro Salitre).

Etxeko txikiek ere izango dute non aukeratu; Geltokia plazan *Martingala* (Gari, Montxo eta Joselontxo) eta *Mamu txikiak* (Oihulari Klown) pailazo lanak izango dituzte eta Andres Isasin, *¡A escena!* (Kuko), *El viaje de Mur* (Behibi's) eta *Cyrano* (Gorakada). Sarrerak aldeztu aurretik erosi ahal izango dira Kultur Etxean eta BBKn. ○

LA TERRAZA PROIEKTUA BERTAN BEHERA

Udal Turismo arloak eta Ereaga hondartzako zerbitzuak birmoldatzeko helburua zuen *La Terraza* proiektua bertan behera utzi du Udal Gobernu Taldeak. Adostasun zabalagoa izango duen proposamen barria diseinatzeko saiatuko dira, informazio turistiko eta arreta zerbitzua ahalik eta kalitate handienagaz eskaini ahal izateko. Proiektuari uko egiteak, eraikinaren eraspina aurrera ez eroateaz gain, aldeztu aurretik adostutako kontratu tekniko guztiak bertan behera geratzea suposatuko du.

BIRIBILGUNEA ANDRA MARI AUZOAN TRAFIKOA HOBETZEKO

Peña Santa Marina eta Zientotxe kaleen arteko gurutzebideko trafikoa hobetzeko, 23.6 metroko diametroa izango duen biribilgunea egingo dute. 264.000 euro inbertituko dira gurutzebidea hobetzeko; lanak urria amaieran hasi eta 80 egunez luzatuko dira. Biribilguneaz gain, oinezkoentzako pasabide jasoak egingo dituzte, ibilgailuak astiroago joan daitezkeen. Proiektua auzokideen eskaerei erantzuteko diseinatu da.

AREETAKO KAIAREN HORMA ALTUAGO

Areetako moilako horma 80 zentimetro altxatuko dute herritarren segurtasuna eta aisialdia areagotzeko. Gaur egun, 55 eta 68 zentimetro bitartean dago. Udal Gobernu Taldeak hartu du erabakia herritar batzuen iradokizunak aztertu ostean. Areetako kaia urbanizatzeko egiten ari diren lanen barruan kokatuta dago hormaren berregituraketa, eta Estatu Funtsak emandako diru laguntzagaz finantzatzeko da. Lanak eskuz egin beharko dira, horma oso zaharra baita; horrela Getxoko pasealeku enblematikoenetarikoaaren perfila ez aldatzea lortu gura dute. Dena ondo joanez gero, lanak urte akaburako amaituko dituzte.

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
 193IN SORTUX
 LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak
 Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45
 ALGORTA

Garaizar
barrikuntzak
 • igeltsaritza orokorrean
 • etxebizitzak eta lokalak
 • gremioak
 Tf. 944 430 52 43 / 607 952 907 • regarizar@euskalnet.net
 Iteka kalea 14 ALGORTA

Torre 2
 48930 ALGORTA
 94 491 12 71
 iratigorta@gmail.com
irati
 OPARIAK MODA GAZTEA

Leire Idarraga > Getxoko Udaleko Berdintasun Saileko teknikaria

“Jendea ez da ezintasun fisikoa duen pertsonaren lekuan jartzen”



Leire Idarraga

Ikasturte barriagaz batera hasi zen Leire Idarraga Berdintasun Sailean beharrean. Psikologian lizentziatua da eta Ikerketa Feministan espezializatua. Iraila arte Martikoena kaleko bulegoan zegoen Berdintasun Saila, baina Idarragak ezintasun fisikoa du, eta eraikina eskailez beteta dago; Makaleta Etorbidean dago orain. Egunerokoan aurkitzen dituen oztopoez berba egin digu algortarrak.

—Zer aurkitu zenuen Berdintasun Sailean beharrean hasi zinenean?

—Nik Idoia (Berdintasun Teknikaria) ezagutzen nuen aspaldi praktika batzuk eskatu nizkiolako. Ezin izan nituen praktikak egin eraikina ez zegoelako ezintasun fisikoa duen pertsonentzako egokitua. Lanpostua atera eta elkarrizketa egin nuenean, konponduko zutela esan zidaten; saila Makaleta Etorbideko eraikinera aldatu zuten. Esfortzu handia egin behar izan du Idoiak fitxategi guztiak behera eramateko, eskertzekoa da.

—Aurretik antzeko arazorik izan duzu?

—Ez. Basaurin egon nintzen ikastetxeetan beharrean eta nahiko ondo konpondu nintzen, eskola gehienak egokituta zeuden. Hala ere, aldez aurretik begiratu behar nuen lekua zelakoa zen. Gehienetan arrapalak zeuden, nahiz eta batzuetan Everest modukoak izan.

—Getxon, herrian orokorrean, oztopo asko aurkitzen dituzu?

—Algorta den modukoa da, hori ez da aldatuko. Bere xarma du hainbeste alda-pa izateak, nahiz eta niretzako mesede ez izan. Horretaz gain, akats handiak daude. Alde batetik, aparkalekuen ara-

zoa. Jendeak ez ditu elbarrituentzako aparkalekuak errespetatzen. Batzuetan paso egiten dut eta beste leku batera noa; baina zerbait egin behar dudanean garabiari deika ibili behar naiz. Gainera, Algortan ez dago plaza askorik. Bestalde, taberna eta eraikin askotan ez da araudia betetzen. Gehienetan ezin naiz sartu ere egin. Zaharra denean ulertzen dut, gastu handia suposatzen baitu aldatzeak; baina, zerbait barria egiten dutenean, amorrua ematen dit hasieratik txarto egiten dutela ikusteak.

«Arkitektura ikasleei ikasgai bat gurpildun aulkian egitea proposatuko nieke»

—Non uste duzu egin behar dela indar gehien oztopoak desagerrarazteko?

—Arazo nagusia jendearen kontzientzia da, ez dira gure lekuan jartzen. Maila batean ulertzen dut, osasuntsu dagoenarentzat eskaloia bat ez baita ezer. Baina ahalegina egin behar dute eta pentsatu orain ondo daudela, baina agian, egunen batean laguntza beharko dutela ume txiki bat edo hanka apurtuta dutelako. Nik garabiari dei diezaioket, baina jendea kontzientziatuta ez badago ez du ezertarako balio. Ezberdintasunean hezteak, hori falta da. Ezberdinak garela transmititu behar dugu; denak ez gaude osasuntsu, eta ez gara guapoak eta perfektuak, eta ezberdintasun horien jabe izan behar dugu. Sexu bereizkeriagaz gertatzen denagaz pareka daiteke, bote-re kontua da: nor egin dituen legeak eta norentzako. “Politikoki zuzenak” izateko erabili bai, baina ez da praktikan jartzen. Arkitektura ikasleei ikasgai bat gurpildun aulkian egitea proposatuko nieke, adibidez. ○

Areetako merkatuak

agur esango digu urtarrilean; **teknologia** enpresen **gunea** eraikiko dute bere orde



Areetako merkatua

Aho batez onartu zuen Getxoko Udalbatzak irailaren 23ko plenoan, Areetako azokaren zerbitzua bertan behera uztea, leku berean eraikiko den Enpresa Gunearen lanak martxan jarri ahal izateko. Merkatariakaz lortutako akordioaren arabera, 2010eko urtarrilaren 15ean utziko dituzte euren saltokiak; Udalak doako aholku zerbitzua eskaintzeaz gain, diru laguntzak eman- go dizkie saltokiak udalerriko beste gune batera erroten badituzte.

Merkatuaren orde egingo den eraikin barriak, 20 eta 25 enpresa bitartean hartuko ditu eta BiscayTIK proiektua-

ren barruko Microsoft gune teknologikoari lekua egingo dio. Bost solairu eta teilatupea izango ditu; gainera, eraikinean aparkatzeko solairuen kopurua handitzearen bideragarritasuna ere aztertu- ko da. Bizkaiko Foru Aldundiak jarriko ditu Enpresa Gunea eraikitze- ko beharrezkoak diren 6 milioi euroak. Imanol Landak, Getxoko Alkateak, udalerrira eraldatzeko prozesuaren alde, alderdi politikoek agertutako jarrera eta laguntza eskertu du. Izan ere, proiektuaren alde egiteaz gain, alderdi guztiek azpimarratu gura izan dute enpresa guneak herriari ekarriko dion aberastasuna. ○

ASTEAN ORDU BETEZ EUSKARAZ BERBETAN

EGIZU Getxo Euskaldun Elkartek Berbalagun 2009-2010 kanpaina abiarazi du. Urrian zehar izena emateko aukera egongo da, eta talde barriak azaroan hasiko dira batzen. Iaz 200 lagun inguruk hartu zuten parte euskaldun barriak zein zaharrak asteen ordu betez euskaraz berbetan jartzeko helburua duen egitasmoan. Izena emateko, elkarteko telefonora (619 935 541) deitu edo Algortan duen bulegora (Karitate kalea 1, sotoa 10. bulegoa) hurreratu baino ez duzu.

BOLIVIARI BURUZKO JARDUNALDIAK URRIAN

Bolivia Getxotik hurrago egongo da urrian; izan ere, itsasoz beste aldean dagoen herrialdeari buruzko jardunaldiak egingo dituzte hilaren 19tik 31ra. Dantza eta sukaldaritza ikastaroak egiteaz gain, Mikel Arrazolaren argazkiak bilduko dituen *Beste Bolivia* izeneko erakusketa ikusi ahal izango da, urriaren 20tik aurrera Algortako erakustaretoan. Honez gain, mahai inguruak, proiektzioak, hitzaldiak eta zineforuma egingo dituzte Villamonteko kultur-etxean; baita ipuin kontalari emanaldia, dantza eta jantzi erakusketa ere. Ekintza horietan parte hartu edo informazio gehiago gura duenak Villamonteko Kultur Etxera jo besterik ez du.

AKADEMIETAN EUSKARAZ EGITEKO AUKERA DAGO

Getxoko Euskara Zerbitzuak eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartek bultzatutako GEHI egitasmoaren barruan, jarduerak euskaraz eskaintzen dituzten akademiak zeintzuk diren ezagutzeko informazio kanpaina jarriko dute martxan urrian. Zerrendan eskola laguntza, musika eskolak, zein arte eskolak ematen dituzten zentroen izenak agertuko dira, besteak beste. 10.000 eskuorri banatuko dituzte herriko familien artean. Guztira, 17 dira eskolak euskaraz eskaintzen dituzte zentroak eta 9 konpromisoren bat hartu dutenak.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Lamiakoko araztegiaren aurreproiektua aurkeztu zuten udan; helegiteak aurkeztu dituzte herri plataformak eta ezker abertzaleak

Uztailaren 20an aurkeztu zuen Lamiakoko araztegiaren aurreproiektua Espainiako Ingurumen Ministerioak. Baina egitasmoaren aurkako herri-ekimenak eta Ezker Abertzaleak helegiteak aurkeztu dizkiote.

Uribe Kosta eta Txorierriko 322.000 biztanleren ur-hondakinak jasoko lituzke Lamiakon eraiki gura duten araztegiak. Gaur egun Ezkerraldean dagoen Galindoko araztegiak hartzen ditu urok, baina asebetetzeko zorian dagoela azaldu zuen Bizkaiko Ur-Partzuergoak. Horregatik egin gura dute beste araztegi handi bat. Lamiakoko nasan kokatuko litzateke araztegi barria, etxebizitzetatik ehun bat metrora; 80.000 metro koadro hartuko lituzke eta 330 metro luze, 190 metro zabala eta 26 metro altu neurtuko luke.

Eneko Arruabarrena Leioako alkateak orain urtebete esan zuenez, araztegia *“ahalik eta txikiena izan beharko da teknologiarik barriena izan behar da eta ingurumena errespetatu behar du”*. Leioak *“luxuzko araztegia izango”* duela gaineratu zuen, *“Guggenheimek baino kostu handiagokoa”*.

Baina herritar guztiak ez datoz bat egitasmoagaz eta helegiteak aurkeztu



Lamiakoko nasan egin gura dute araztegiak 322.000 laguneko ur-hondakinak hartuko lituzke

dituzte, Makro-Araztegiaren Aurkako Herri Ekimenak eta Ezker Abertzaleak. Biek kritikatu dute herritarrek ia informatu ez eta helegiteak aurkezteko trabak jarri dituztela, aurreproiektua eta helegiteak aurkezteko uda erabili dutela. Herri Ekimenak *“zikin jokatzeara”* leporatu die administrazio publikoei eta alderdi politikoei.

Makro-araztegia beharrez, araztegi txikiagoak egitea hobesten dute eta hainbat gauza salatu dute. Galindoko arazte-

gitik oso hurbil eta urak leku berera isuriko lituzketela ohartarazi dute, eta beraz, istripu bat jasanezina litzatekeela. Baina kokalekurako *“alternatibarik ezartzeko beharra ez du betetzen”*. Ingurugiroaren gaineko azterketak zehaztasun nahikorik ez duela jasotzen ere salatu dute: *“ez du floraren eta faunaren katalogazio zehatzik egiten, aurrenago egingo dutela diote”*. Horregatik, besteren artean, eskatu dute biek egitasmoa gelditzeko. ○

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK**
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

Ondizen etxe gehiago

eraikiko dute **Hiri-Antolamendurako Plan Nagusian** (HAPN) egin aldaketei esker



Aldapabarrenatik Ondizerraino eraikiko dituzte etxebizitzak

Aldapabarrena kaletik Ondizko erdi-gunera dagoen tartean etxe gehiago eraikiko dituzte, Hiri-Antolamendurako Plan Nagusian (HAPN) egin dituzten moldaketak medio. Etxebizitza libreak zein babes ofizialekoak izango dira. Lehenengo planteamenduaren arabera, babes ofizialeko 92 etxebizitza eta 48 etxebizitza libre egin behar zituzten, baina aldaketak egin ostean, babes ofizialeko 106 etxe, 67 etxe tasatu eta 48 etxebizitza libre eraikiko dute. Tasatuak babes ofizialekoak baino apur bat garestiago izango omen dira, eta errenta handiagoa dutenek ere eskuratu ahalko dituzte, errenta tope bateraino.

Bai babes ofizialeko etxeen eraikun-

tza, bai tasatuena, horretarako sortutako kooperatiba batek kudeatuko du. Berau osatzeko izena emateko eperik ez du zabaldu oraindino Udalak, baina hori gertatzean jakinaraziko ei du. Ondoren, zozketa bidez aukeratuko dituzte kooperatibaren bazkideak. Etxebizitza libreak, ordea, enpresa sustatzaileak berak finantzatuko eta salduko ditu.

Udalak dioenez, krisia dela-eta inongo enpresa eraikitailerik ez zuen bere egin gura egitasmoa. Horregatik egin ditu aldaketak HAPNn eta 67 etxebizitza tasatuak egitea proposatu. Babes ofizialekoak beste 14 etxe gehiago egitea besterik ez du proposatu, lehen 92, orain 106. ○

OLATUDUN PISZINARIK EZ ORAINGOZ

Olatudun piszinarik ez dute momentuz egingo, oraingoz horretarako dirurik ez dagoelako, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusiak iraila amaieran iragarri zuenez. Piszina eraikitzeko lanak hastear eiz zeuden eta Bizkaiko Aldundiak ordaindu behar zituen, ehuneko ehunean, 10 milioi euroak. Egitasmoak hasieratik ez du jende guztiaren oniritzia jaso halere.

KANTIKAKO GAZTEAK, EUROPAKO ONENAK

Lehenengo saria eskuratu dute Kantika koraleko gaztetxoek Italian, Arezzo herrian jokatu den nazioarteko abesbatzen lehiaketan. Irailaren 17tik 20ra izan zen eta urrezko domina eskuratu zuten umeen mailan. Gainera, Europako Sari Handiagatik lehiatzeko aukeratu zuten eta bigarren lotu zen. Azken urteotan lortutako arrakasta biribiltzera datoz sari bi horiek. Zorionak, gazteak!

GUNE BELTZEN DIAGNOSIA EGINGO DUTE

Emakumeentzat arriskutsuak diren guneen diagnosia osatuko dutela iragarri du Udalak. II Berdintasun Planaren barnean egingo dute. Diagnosia egiteko herriko 25 emakumeren parte hartzea planteatu du Udalak, beraien ideiak, iritziak eta ekarpenak jasoz.

DOAKO PROGRAMAK ALZHEIMERDUNENTZAT

Parkinson eta Alzheimer gaitza dutenentzako hasierako fasean dauzkaten leioaztarrentzako doako programak abiatu dituzte Caja Madrileko Gizarte Lanerako programak eta Bizitzen Fundazioak. Gaixoen etxeetan bertan garatuko dituzte eta beraien bizitza kalitatea hobetzea daukate helburu.

Harremanetarako: 94 623 27 44



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezikuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urterik aumera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Antzara Auzoa 84, LEIOA - Tf: 94 664 23 64 / 94 664 33 07
e-mail: leioa@ikasola.net - www.ikasola.net/ikasareb/leioa

Marimar Corchero > Extremadurako Etxeko presidentea

“Edozein kultura da garrantzitsua eta horregatik ezagutzera eman gura dugu Extremadurakoa ere”

Dagoeneko 28. Aste Kulturala ospatu behar dute Astrabuduko Extremadurako Etxeko lagunek. Hilaren 9tik 17ra bitartean hamaika ekitaldi antolatu dute. Guk aitzakiatzat baliatu dugu elkarteak hobeto ezagutzeko.

—Duela ia 30 urte sortu zen Extremadurako Etxea, sorlekuagaz lotura mantendu guran agian?

—Bai, orduko artegatasuna eta beharra gaurkoagaz oso desberdina zen. Extremaduratik etorritakoek hurkoakaz lotura bilatu gura zuten, bizipenak eta atzean utzitakoa partekatzeke.

—Zergatik gaurkoagaz desberdina?

—Asko aldatu dira gauzak, orduan bazeukan lehen aipatu zentzua, eta egun, beste bat. Urte horietan ikusten zen aberastasun kulturala atera behar zela, ezagutzera eman. Horrela sortu ziren ekimen eta ekintza pila bat. Horiek ezagutzera ematea eta txoko itxi bat ez dela argitu beharra zegoen. Edozein tokitako kultura garrantzitsua da, horregatik eman izan dugu ezagutzera. Gaur egun jendea gazteagoa da eta beste joera batzuk dauzka. Ez dauka lehen moduan herrimin horren handia, baina gure ekintzak ere moldatzen saiatzen gara.

—Zer dira, duela hamarkada batzuk



Marimar Corchero, Mari Carmen Olivenza eta Florentino Gonzalez elkarteak batera

urte etorritakoen ondorengoak?

—Bai, bertan jaioak. Gainera, ez dago bazkide izan beharrik antolatzen ditugun ekimen eta ikastaroetan parte hartzeko, eta gaurkotasuna ere bilatzen dugu. Baina nagusiek ere etortzen jarraitzen dute, beren historioakaz eta nostalgiagaz.

—Ekimen horien artean egiten duzue aste kulturala.

—Bertan egiten duguna herrira ateratzear gainera, herritarraz uztartu.

Aurten denetarik egongo da. Ezin falta daiteke gastronomia, ez musika... ezta Extremaduratik etorritako lagunak ere, handik gauzak nola dabilzan kontatzeko, kultura zein folklorea zertan dagoen barri emateko. Gainera, astrabuduarrak feria gastronomikoa hasteko zain daude. Urriaren 10etik 12ra ekarriko dituzte kalitatezko artisau produktuak Extremaduratik bertatik. Hori dena ezagutarazteko zertzelada txiki bat eman gura dugu. ○

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13

FAX 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Sakelakoa

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Ondarearen **jardunaldiak**

Itsasadarra eta herriko **baselizak** ezagutzeko **bisita gidatuak** izango dira urrian



Santimamiko baseliza, Erandio

Itsasadarra uretatik bertatik eta herriko baselizak ezagutzeko parada egongo da Ondarearen Europako Jardunaldien barnean, hilabete honetan zehar. Bisita gidatuak antolatu dituzte Bizkaiko Aldundiak eta Udalek hainbat herritan, Erandio da horietako bat.

Ibilbide bi egingo dira herritik, esan bezala. Itsasadarretik lehena, hilaren 3an, 4an, 17an eta 18an. Nerbioi itsasadarra Bizkaiko industria-garapenaren ardatz izan da hamarkadatan; egun, gure historia ezagutzeko aukera ederra eskaintzen digu. Bilboraino eta Bizkaiko Zubiraino iritsiko da bisita. “*Etorkizun hurbilean hirigune garrantzitsu gisa zein*

bide hartuko dugun ikusteko aukera” izango dela adierazi dute antolatzaileek. Erandioko ontziralekutik urtengo dira bisitak 10:00etan eta 12:30ean.

Bestetik, Fano, Goiherri eta Santimamiko baselizetara ere egingo dute ibilaldia urriaren 31n. Martiartu dorrean amaituko da bisitaldia; monumentu kategoriadun kultura ondasuna dugu dorrea. Goizeko 09:30ean ekingo diote bideari. Edozein bisitatan parte hartzeko erreserba egin beharko da 94 489 01 00 telefonora deituz.

Aukera parebakoa dugu, beraz, gure ondasuna, iragana eta kultura ezagutzeko, bertatik bertara. ○

JUANENeko LANAK AURTEN ESLEITUKO DIRA

Urte akabuan esleituko dituzte Astrabuduko Juanene plaza birmoldatzeko lanak. Sei hilabete iraungo dute, Udalaren arabera, eta ondorioz, orubea oinezkoentzako jarriko dute, egun dagoen erregulatu bako aparkalekua ordezkatzuz. Umeentzako jolastokia, eserlekuak eta paperontziak ipiniko dituzte, eta ur-horniketa barrituko dute. Auzokideek aspaldi eskatu zuten orubea moldatzeko, eta inkesta baten bitartez erabaki zuten zelaia lorategi eta parke bihurtzea. Zehazki, inkestatutako 200 auzokideen artean %80,14k egin zuen aukera horren alde, aparkalekuak aurreikusten zituen aukeraren aurrean.

ARGAZKI LEHIAKETAKO EPEA AGORTZEN ARI DA

Urriaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira argazki lehiaketako lanak. Itsasadarra du gai txapelketaren hirugarren edizio honek. Gogorarazi beharra dago argazkiak postaz bidali, edota zuzenean eroan daitezkeela Udaleko Kultura sailera, zein Astrabuduko Udal Bulegora. Saririk izan ez dutenak Kultur Etxean jaso ahalko dira azaroaren 2tik 16ra, Udalaren erakusketa aretoan ikusgai izango den argazki erakusketa amaitu ostean.

AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOA URRIAN

Herritarrentzako aholkularitza sexologiko zerbitzua abiatu zuen Udalak irailan eta ikasturte osoan egongo da. Urriari dagokionez, 9an eta 23an hartuko zaituzte Gazte Informazio Bulegoko Drogomenpekotasun gelan, 18:00- 20:00 orduetartean. Sexualitate eremu zabalari buruz informatuko zaituzte, baita pribatuak diren kontsultak planteatu ere. Mitxun Blanco Hidalgo sexologoak erantzungo dizu, Biko Arloak lan taldearen partaideak.

Harremanetarako:
sexaholkuak@hotmail.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

ITZARTUREN MARGO IKASTAROAK UMEENTZAT

Abian dira hurrei zuzendutako margo ikastaroak. Itzartu elkarteak antolatu ditu, beste behin ere, baina aurten lehenbizikoz izango dira herriko hurrei bereziki zuzenduak. Multzo bitan banatuko dituzte haurrak, 4-8 urte bitartekoak batetik, eta 8 urtetik gorakoak bestetik. Astean ordu bikoak izango dira ikastaroak. Parte hartzeko ez da derrigorrezkoa elkarte kide izatea. Itzartu elkarte lokallean bertan eman dezake izena interesatu orok (Doctor Landa kaleko 3.ean daude), astelehenetik barikura, 10:30-13:00 eta 17:00-19:30.

ZURE AVISENAC EUSKALDUNDU GURA?

Erdarazko grafiaz idatzita dauden euskal jatorriko abizenak euskarazko grafiaz jartzea du helburu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak abiatu duen kanpainak. Askotan, euskal jatorria duten deiturak gaztelaniaren ortografiagaz idatzita ikusten ditugu, gogorazari dutenez; euskara orain dela urte gutxi arte ofiziala ez izatearen ondorioetako bat. Egoera hori ikusirik euskal abizenak normalizatu gura dituzten uribe kostarrak bere deiturak euskal grafia aldatzera animatu gura dituzte Mankomunitatetik. Beraz, animatu eta Getxoko Erregistro Zibilerak hurreratu baino ez daukazu (Foru kalea 10). Astelehenetik barikura dago zabalik, 09:00-14:00.

NAZIOARTEKO LASTERKARI NUDISTAK

Euskal Herriaz kanpoko partaide gehien izan du Patxi Ros Sariak, hamar urte bete dituen honetan. Barinatzen korritu zuten lasterketa nudista entzutetsua irailaren 19an Europa eta Amerikatik heldutako lagunek, bertakoak batera; 64k gurutzatu zuten helmuga. Kassie Betts kanadiarrak irabazi zuen emakumeetan eta Iñigo Gonzalez getxoztarrak gizonezkoetan.

Billabong Pro, olatura igo, segi hondartzara, munduko surflaririk onenak herrira iritsi dira eta



Nazioarteko 45 surflari onenak egongo dira txapelketan

Munduko surflari onenak dabilta herriko olatuen artean, bigarren urtez jarraian. Billabong Pro sariketa hasi da Arrietara hondartzan. Munduko Txapelketako probetako bat da, eta Bizkaian jokatu da urriaren 17ra arte, Sopela eta Mundaka artean. Hamar probak osatzen dute munduko zirkuitua, eta horietako hiru jokatu dira European.

Aukera parebakoa puntako kirolariak lanean ikusteko, bertan daude eta nazioarteko 45 surflari onenak. Zaleek ondo baino hobeto ezagutuko dituzte

Tiago Pires, Mick Fanning, Joel Parkinson, Kelly Slater edota Taj Burrow. Gainera, horiekaz batera arituko dira beste hiru gonbidatu ere: Zarauzko Hodei Collazo eta Marcos San Segundo eta Australiako Dean Bowen.

Aurten internet bidez txapelketa zuzenean ikusteko aukera ere egongo da, www.billabongpro.com gunean. Baina seguru Uribe Kostako zaletuak Sopelara hurreratu eta idoloak bertatik bertara ikusteko aukerarik ez dutela galduko. Igo zaitez olatura! o

LALIAK
Taberna

Bentatzu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 23

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Asier Onaindia eta Xabier Exposito > abenturazaleak

“Basamortuan bakarrik egongo ginela uste nuen, baina kanpamentu asko ikusi dugu”



Onaindia, Exposito eta beste bi lagunak Mauritaniara egindako bidaian, abuztuan

Lur orotako ibilgailu errusiar zahar bat hartu eta Mauritaniarantz abiatu, Saharako basamortua zeharkatu. Abentura horretan murgildu dira Asier Onaindia (A) eta Xabier Exposito (X) sopeloztarrek abuztuan, Aritz Bizkarra eta Jon Goikouria lagunakaz batera. Sondikan argazki erakusketa egingo dute eta bideoa ere prestatzen dabilta.

—Bidaia bitxia egin duzue.

—(A) Apur bat abenturazaleak gara. Amazonasen egonda nengoen, Europa nahiko ezagutzen nuen, Afrika geratzen zitzaidan. Bidaiak nire kabuz egitea gustuko dudanez, lagunei proposatu nien bidaia. Hiru hilabete ibili ginen prestatzen eta auto zaharra konpontzen, basamortua ezagutzeko ideiaz. Maroko eta Sahara zeharkatu ostean Mauritaniara iritsi ginen. Aste bi ibili ginen basamortuan. Eta oso pozik.

—(X) Chinguetti herriraino heldu ginen, han ezagutu genuen herriko mai-

sua eta bere sendiagaz bizi izan ginen bi egunez. Gauza asko erakutsi eta azaldu zigun. Bizimodu desberdina ezagutu genuen, ohitura desberdinak, asko ikasi genuen. Gainera ramadana egokitu zitzaigun eta inon ez zuten janaririk prestatzen egunean zehar. Euren moduan gauz jaten genuen. Beroa izan da okerrera, bero handiegia.

—Eta kotxeak eutsi zuen?

—(X) Beno, pila bat matxura eta abentura gertatu zaigu, baina bazeuden mekaniko asko.

—(A) Niretzako bitxiena basamortuan bakarrik egongo ginela uste nuela izan zen, baina kanpamentu nahiko ikusi dugu. Ikaragarria da nola egiten dioten bizitzari aurre ia urik eta janaririk barik, eta pozik. Ni horregaz geratzen naiz.

—(X) Harrigarriena izan da nola bizi duten kultura eta erlijioa, eurentzat dena da. Adibidez, ramadana nola darabaten eta nola sinesten duten horrelako gauzetan. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhilton.com

4 bide pinturak



BONDÉX

DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

BIRZIKLAPENA, URRIKO GAIA KULTUR ETXEETAN

Hilabete honetan birziklapenaren gaiari helduko diote Berangoeta eta Santa Ana Kultur Etxeetan. “Birziklapenaren bitartez ikasiko dugu gozatzen; tailer, joko bereziak landu eta sortuko ditugu, eta horrela jasangarritasunaren astea ospatuko” dute Ludoklubean. Urriaren bigarren astean landuko dute batez ere, 9tik 16ra. Baina egongo da beste zereginik ere, berbarako, Arrastroen jolasa prestatu dute hilaren 23rako. Gaztelekuan, ordea, *Braim Trining* Maratoia egingo dute hilaren 9an. Hil honetako Berango Gaur ekimenean, barriz, urriaren 23an, Gaueko *Orienteering* egitera doaz, 20:00-23:00. Gainera, domekero jokatuko dira rol partidak, 17:00etan. Edozeinetan parte hartzeko, zeren zain zaude?

NAGUSIEK BADAUKATE ZEREGINIK HIL HONETAN

Berangoko gure nagusiak nahikoa ipurterreak direla jakin badakigu, eta urrian ere topatu dituzte berotzeko bazterrak. Hilaren 16an ospatuko dute Nagusi FERIA, eta 21ean, Gasteiza hurreratuko dira Santa Maria katedrala eta Artium museoa bisitatzeraz. Joan gura duenak urriaren 14tik 18ra dauka izena ematea, 17 euroren truke, Nagusien Etxean. Hil honetan martxan da Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzua; urriaren 6an izango da, doan. Azkenik Karabi Azpi elkarteak txokolatada antolatu du hilaren 23an Nagusien Etxean; 18:00etan izango da.



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Santa Anako lehen fasea amaituta, **kultur etxeko** bigarren zatiko **lanak** **esleitu** dituzte; 733.000 euro kostako da



2010 amaieran prest egongo da kultur etxe barria Santa Anan

Kultur erabilpenerako balio anitzeko eraikin barriaren eraikuntza aurrera doa Santa Ana auzoan, lanen lehenengo fasea amaitu dute dagoeneko. Hiru zatitan egingo dute eta bigarrenaren lanak esleitu dituzte; 733.000 euro bideratuko dute horretarako eta eraikinaren barrualdea egokitzea izango du helburu: zurgintza, elektrizitate instalazioa, estaldura, beiratea... Hirugarren fasean egingo dute auditorioa eta sartuko dute ekipamendua.

“Erabakigarria da kultur taldeek beren ekimenak garatzeko gunea edu-

kitzea”, Izaskun Zubiaur Udaleko Kultur arduradunak dioenez. “Santa Anako Kultur Etxeak biderkatuko ditu elkarte horientzako eremuak eta egunero ekimenak gauzatzea; gainera, beraien lanak publikoari erakusteko azpiegitura egokiak izango dituzte”. Auditorioan izango dute aukera beren antzerki lanak erakusteko, berbarako; berrehun ikuslerentzako lekua edukiko du. Hiru faseak amaitutakoan, 2010 amaieran, 1.500 metro koadro izango dute kultur elkarteek beraien erabilpenerako. ○



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Ekaitz Apraiz > Berbalagun egitasmoaren arduraduna

“Guztientzako lekua dago,
euskaldun zahar zein barri”



Ekaitz Apraiz

Ikasten ibili, nahiz ama hizkuntza izan, ez dago euskara isilarazteko aitzakiarik Uribe Kostan. Mankomunitateak eta Urtxintxa Eskolak *Berbalagun* egitasmoa abiatu dute hirugarren urtez. Aurten Ekaitz Apraiz sopoloztarra izango da Berangotik-Lemoizerainoko lagunak antolatzearen arduraduna. Irailean zabaldu zuten matrikulazio epea eta ez du itxiera datarik izango: “Jendea zenbat eta lehenago etorri hobeto, taldeak urrian egingo baititugu”.

berbalagunuribekosta@hotmail.com e-postara idatzi edo 605 773 541 telefonora deitu baino ez dago Berbalagun talde batean sartu gura izanez gero.

Joan den urtean 60 lagunek hartu zuen parte: “Aurten gehiago espero ditugu”. Ordutegi, bizileku eta zaletasunen arabera antolatuko dira taldeak: “Batzuk euskaltegiko etxerako lanak egiten dituzte; besteek aldiz, frontoian jokatzeko edo poteoan

joatea gurago dute. Ez dago formatu itxirik, euren gustura egon behar dira”. Horrez gain, urtean zehar urteerak egiten dituzte, denak elkarregaz: “Gabonetan kanta-poteoa; gainera, joan den urtean Mauleko aratusteetara eta Sagardotegira joan ziren. Aurten horiek errepikatzeaz gain, Bizkaiko Txakolin dastatzea antolatzeko asmoa daukat”. Urrian zehar aurkezpenak egin-

**«Ordutegi, bizileku
eta zaletasunen arabera
antolatzen dira taldeak»**

go dituzte Mankomunitateko herrietako Kultur Etxeetan. Guztientzako lekua dago *Berbalagun* egitasmoan: “Euskaldun barriek konplexua izaten dute; baina jakin behar dute ahal dutela, lotsa barik berba egin behar dutela”. Astean ordu betez euskaraz egiteko konpromisoa hartzea baino ez da eskatzen: “Eskualdea berreuskalduntzea lortu behar dugu”. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15

BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andres Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA

Tf. 94 430 64 93



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03
ALGORTA

BIZIKLETA KASKOEN ZOKKETA HILAREN 14AN

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 50 bizikleta kasko zozketatuko ditu BIZIMETA zerbitzuaren propaganda kanpainaren barruan. Kaskoa eskuratzeko, urriaren 13a arte Mankomunitateko herrietan banatuko diren kupoiak bete eta Sopelako bulegoan (Gatzarriñe 2-4) aurkeztu. Zozketa hilaren 14an egingo da, eta irabazleen izenak, Mankomunitateko iragarki taulan eta web gunean argitaratuko dira.

UDAL ZERBITZUEN PABILOIA 2010ERA KO

Urdulizko Udalak 835 metro koadroko pabiloi industrialera erakiko du Labetxe inguruan, udal biltegi legez erabiltzeko. Udal ekipamendu mota oro gordetzeaz gain, biltegiak eta aldagelak izango ditu. Lanak uztailan hasi ziren eta enpresa esleipendunak sei hilabeteko epea dauka lanak amaitzeko. Pabiloian behar egiteko pertsonak aukeratzeko, Udalak herriko bizilagunei emango die lehentasuna.

ANTZERKIAK ETA TAILERRAK BARRIKAN

Tailerrak eta antzerkia dira Barrikako urriko agenda kulturalerako protagonistak. Hileko martitzen eta zapatuetan Ballet eta Kung-Fu tailerrak egingo dituzte. Bestalde, 15ean eta 29an irakurmena suspertzeko tailerra izango da 18:30etik Txintxilandian. Hilaren 24an oster, Musika Tresnen Fabrika izeneko antzerkia, 12:00etan udaletxean.

GORLIZ/PLENTZIA

Bisita gidatuak Gorlizko farora eta Butroera



Gorlizko farora hurreratuko dira hilaren 17an eta 24an

Bideek garrantzi handia izan dute herrien historian. Gerra garaian kokaleku estrategikoak ziren eta garai oparoe-tan, jakiak garraiatzeko ezinbesteko baliabidea. Horregatik, *Bizkaia bideetan zehar* leloa aukeratu dute aurtengo Europako Ondarearen Jardunaldietarako. Bizkaia osoan bezala, Plentzian eta Gorlizen ere ekimenak antolatu dituzte.

Plentzian, metroko zubi ondoan dagoen plazatik abiatu eta marea-errota zaharraren ondotik pasa ostean, Butro-

auzora hurreratuko dira. Ibilbidean, egurra nahiz beste material batzuk zelan garraiatu eta merkaturatzen ziren azalduko dute. Bisitak hilaren 17an eta 18an egingo dituzte goizeko 10:00etan hasita. Gorlizen barriz, Azkoarriagako gotorleku hondarrak, Gorlizko faroa eta bunkerraren barrualdea ezagutu eta Foru Abeletxean amaituko da bisita. Urriaren 17an arrastiko 16:00etan egingo dute eta 24an goizeko 11:00etan.○

Izena emateko: 94 615 66 12

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

Urr. 5 - Urr. 19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Getxophoto.** Urriaren 11 arte. Getxoko hainbat lekutan.
- **Sentitzeko bost moduak.** Hainbat arte erakusketa. Urriaren 16ra arte, Erromoko erakustaretoan. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00 astegunetan eta 11:00-13:00 zapatuetan.
- **Milurteko Garapen Helburuak.** Urriaren 13tik 19ra, Algortako erakustaretoan. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30 astegunetan eta 10:00-13:00 zapatuetan.
- **Kubako emakumeak.** Urriaren 1etik 28ra, Berdintasun arloaren eskutik, Algortako kultur etxean.

LEIOA

- **Munduko musika tresnak.** Azaroaren 1era arte, Kultur Leioan. Astelehenetik barikura 10:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan eta jai egunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Doan.

ZINEMA

LEIOA

- **Mugarik Gabe V. Emanaldia: Kubako Zinema Txiroaren Jaialdia.** Urriaren 5ean, 7an eta 8an, 20:00etan. Gonbidapenagaz.
- **Frantziar Zine Zikloa.** Urriak 6, 13, 20 eta 27. 20:00etan. 2 euro.

MUSIKA

LEIOA

- **Haig Yazdjian (Grezia). XX. Musika Denboraldia.** Urriaren 9an, 21:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen. 15 euro.
- **Billy Lyrly Band.** Urriaren 16an, 22:00etan, Kultur Leioako Kafe Ambigu aretoan. 6 euro.



Jose Alfonsok Bangladeshen atera zituen argazkiak 2008ko abuztuan

► Argazki erakusketa

Haurrak lan egitera behartzearen aurka

Jose Alfonsoren argazkiak ikus daitezke Plentziako Goñi Portalen. Bangladeshera 2008ko abuztuan egin bidaian atera zituen. Eskola utzi eta lan egin behar duten haurrak dira protagonista. Intervida Fundazioak umeen lan esplotazioaren aurka daroan kanpainaren barruan kokatzen da erakusketa. Dhakako fabriketan egin zituen argazkiak Alfonsok, Intervidak bertan lan egiten duten haurrei hezkuntza ematen lan egiten du, lan ordutegiagaz uztartuz; horregatik utzi zioten argazkiak ateratzen. Erakusketa 30 argazkik osatzen du eta astelehenetik barikura dago ikusgai, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, erakusketa aretoan.

- **Non:** Plentziako Goñi Portalen • **Noiz:** Urriaren 15era arte

ERANDIO

- **Dantzaldia orkestragaz: Silver orkestra.** Urriaren 18an, 17:30ean, Altzagako Irailaren 23a plazan. Euria eginez gero azokan izango da.
- **All Jazz Era.** Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatuta. Urriaren 18an, 20:30ean, Altzagako azoka zaharrean. Ondoren, aurtengo egitasmoak ezagutzera emango ditu euskara taldeak.

ANTZERKIA

GETXO

- **Kontularien Kluba: Ipuin laranjak.** Urriaren 9an, Algortako Kultur Etxean, 19:00etan. Doan.

GORLIZ

- **Iñaki Carretero ipuin kontalaria (euskaraz).** Urriaren 10ean, 18:30ean ikastetxean.

BARRIKA

- **Ipuin kontalaria haurrentzat.** Urriaren 15ean, 18:30ean, Udal Liburutegian.

BESTEAK

LEMOIZ

- **Informatika ikastaroa: posta elektronikoa (Outlook Express).** Urriaren 7an, 18:00-20:00, kultur etxean. Doan. Izena eman kultur etxean bertan.

LEIOA

- **Argazki eta Film laburren lehiaketa.** Lanak aurkeztu behar dira urriaren 16a baino lehen.

ERANDIO

- **Yoga eta erlaxazio tailerra, Keli taldearen eskutik.** Urriaren 5etik aurrera eta ekaina arte, astelehenero, Lutxanako eskoletan. Hilean 20 euro.
- **Autodefentsa ikastaroak emakumeentzat.** Astrabuduan urriaren 17an eta 18an. Altzagan urriaren 24an eta 25ean (gazteentzat), eta urriaren 19tik azaroaren 16ra ikastaro luzea. Izena eman behar da urriaren 15a baino lehen, Gazte Informazio Bulegoan.
- **Argazki-urteera Urbasara.** Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Urriaren 18an, 07:00etan, Astrabuduko taxi geltokian. Izena emateko: 626 14 36 42 edo astrabudukofotoclub@gmail.com.
- **Kristalezko erlojua egiteko ikastaroa.** Azaroan izango da baina izena eman behar da urriaren 23a baino lehen Gazte Informazio Bulegoan. Erandioztarre 2 euro, gainontzekoek 3 euro.

SOPELANA

- **Billabong Pro surf txapelketa.** Urriaren 5etik 17ra, Arriatera hondartzan. Internetez zuzenean ikusteko: www.billabongpro.com.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Erdi Aro eroa

Urtero legezt Erdi Aroko Azokak bereganatu zituen Algortako kaleak eta plazak iraileko azken aurreko aste akabuan. Euri zaparrada etenbakoan bitarteetan artisau, merkataria, salerosle, zirku-akrobata, txerpolaria, saltinbankia, titiritero, errementaria, suge eta ehiza-hegazti erakusle eta abarrek hurreratu ziren herritarrei antzinako bizimodua eta ohiturak ezagutarazi zizkieten. Eta aizu, orduan ere egun euritsuak baziren!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**









Ereaga aireportua

Ezinbesteko lurreratzea

Getxoko Fotorretro erakusketan aurkitu dugu Ereagako hondartza ustebako aireportu bihurtu zeneko argazki hau. Diotenez, beharrezko lurreratzea (hondartzaratzea, egokiago agian) egin behar izan zuen hegazkin pribatu honek Ereagan. Ostera, txoritxo batek antzeman ei zuen eta jakinarazi digu “beharrezkotasun” horren muga zalantzazkoa izan zitekeela: pilotua edo bidaiariak neguritarrak ei zirelako eta beharrezko lurreratzea euren etxetik gertu-gertu egin zutelako. Kontuak kontu, ziur dakiguna da larri aurpegirik ez daukaten argazkikoen izen-abizenak ondorengoak direla, ezker-eskuma: Paloma Gandarias, Teresa Fernandez Bilbao, Asun Azaola, Luis Ignacio Azaola, Teresa Iturriaga Ereño eta Modesto de Perdigo Melendo (pilotua; makurtuta).

[berbetan]

Donostiako Zinemaldian estreinatu barri den *Zorion perfektua* (Jabi Elortegi) filma da Zumaiko aktoreak momentuz parte hartu duen azkena; azkenekoa bai, baina lehenengo lanak orain dela 25 urte baino gehiago antzeztu zituen Elena Iruretak (Donostia, 1955). Euskal aktoreen lehenengo belaunaldikoa izaki antzerkian, telebistan eta zinean jardun du. Hala, bere ibilbidean antzerki lan andana, telesail mordoak eta hamaika film ezagunen gidoiak antzeztu ditu; horien guztien izenburuak zerrendatzeko txoko honetan ez dago lekurik, hala ere, jubilazioan pentsatu ere ezin duela aitortu digu.

Elena Irureta

Ezinbestean, bizi-antzezle

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **EITB**

—Urtetan zehar, hamaika aldiz galde-tu dizutela badakigu ere, gogoratuko zenituzke guretzat aktore izatea erabaki zenuen egun haiek, ibilbidearen has-tapenak?

—Ez dakit zenbatetan egin didaten gal-dera hori eta, gainera, beti gauza bera kontatzen dut; ez dakit zenbat aldiz ida-tzi den horretaz, eta uste dut dagoeneko ez duela batere interesik, baina go-goratuko dut berriro ere. 80. hamarka-da hasieran, 1982-83 aldera, antzerki es-kola ireki zuten Donostian, eta han hasi ginen hamabiko talde bat; denen izenak ez ditut gogoratuko, baina tartean ziren Klara Badiola, Aizpea Goenaga, Kontxu Odriozola, Inaxio Tolosa, Ramon Agirre e.a. Bertan ibili ginen hiru urtez eta harrezkero muntaketak egiten hasi gi-nen. Gero, Aizpea Goenaga eta biok *Txirri*, *Mirri* eta *Txiribiton* pailazoekin lanean hasi ginen, eta bitartean, ikasten ari ginela, Juan Miguel Gutierrez (ordu-ko HABEko zuzendaria) *Bai*, *horixe!* saioa egiten hasi zen; euskarazko telebis-

ta-eskola haiek, eta denok hartzen genuen parte, esaldiak eta esaten... Ho-rrela hasi ginen. Harrezkero, bakoitzak ahal duena egin du! Oro har, lehen pro-mozio hartako gehienek jarraitzen dugu, bat edo beste kenduta. Baina, antzerki eskola hura ere, itxi zuten, *lastima!* Baina jende asko eta asko ibili ginen hor. Gero bakoitzak bere aldetik jo du, eta hor ari gara... Noizbehinka elkartzen gara lan batean edo besteren batean, lagunak iza-

egia esan, denetarik egin dugu: idatzi ere bai, egin nahi genituen gauzak guk idatzi ditugu, guk antzeztu... Ezin dugu besteen zain egon, besteak gutaz noiz akordatuko zain, baizik eta guk geuk muntatu behar ditugu gauzak. Eta ho-rrela aritu gara, batzuetan deitu gaituz-te eta beste batzuetan ez, esan bezala, hemen ezin dugu telefonoak noiz jo zain egon! Bestela, ezingo genuke hone-tan jarraitu. Batetik eta bestetik, batzue-

“Hemen ezin dugu telefonoak noiz jo zain egon; bestela ezingo genuke honetan jarraitu”

ten jarraitzen dugu. Eta lanean jarraitzen dugu! Elkarrekin batzuetan, hainbeste denbora pasa eta gero ere!

—Aktore ogibidean, hemen, (bizi)irau-tea ez da batere erraza, ezta? Ordea, zure ibilbideari erreparatuz, hainbatek ez du sinetsiko.

—Gainera, denek iraun dugu! Baina,

tan hobeto eta besteetan larriago, baina hor gabiltza, bueltaka beti.

—Euskal ikusleagoa oso ohituta dago fikzioan ikusten zu eta Jose Ramon Soroiz bikote rolean, eta umorezko antzezpenetan, horren adibide dira *Bi eta bat*, *Jaun eta Jabe* eta *Martin* tele-sailak.



—Badakizu zer gertatzen den hemen, telesail bat grabatzen dugu, eta kapitulu bakoitza hamalau bat aldiz ematen dutela! Orduan, beti gaude hor, hala ematen du. Taberna batera joan, gora begiratu (telebistara) eta: “berriro ematen ari al dira hori? amaaaaa!”. Urteak dira egin direla eta jardun eta jardun ibiltzen dira. Telesail ezberdinak egin ditugu biok elkarrekin, baina bitartean urte asko joan dira, ordea esandakoagatik, ematen du jarraian izan direla. *Bi eta bat* ez dakit noiz egin genuen, baina oso gazte ginen! Ordutik orain *Martin* egin dugun arte, bitartean 20 urte pasako ziren! Baina, bai, ematen du beti elkarrekin gaudela; Gero, bada beste kontu bat, esate baterako, *Martin* udaran grabatzen dugu, hil eta erdian edo, baina gero telesaila urte osoan ikusten da telebistan. Urtean zehar, ordea, bakoitzak beste kontu batzuk egin ditu, baina urtean zehar ematen denez, ematen du urte osoan gaudela elkarrekin lanean. Hala balitz! Nahiago nuke, bai, urte osoan hemen gelditu eta hemen lan egin, horixe nahiko genuke guztiok, baina atzera eta aurrera ibili beharra dago.

—Hemen hamaika telesailetan ikusi bazaitugu ere, beste asko legez, lan bila Madrilerara joandakoa zara zu ere...

—Puff! Hamaika urtez ibili naiz horrela, joan eta etorri, joan eta etorri... Oro har, *Comisario* telesailerako lanean ibili naitzenean, gero *Los Misterios de Laura* telesail berrirako, orain pare bat kapitulu *Hospital Central*-erako gaixoarena egiten... Saltoka-saltoka beti.

—Ezberdintasun handia dago bertokoraren eta hangoaren artean? Lan egiteko moduan, barbarako.

—Ez, ez handiegirik. Hemen etxekoekin lan egiten duzula. Bestalde, agian hango platoak, handiagoak direla, jende gehiago egoten dela inguruan...

—Eta hizkuntza aldagetakarena...

—Ez; bai eskolan, bai lanean, baita antzerkia ere beti ikasi behar izan dugu bi hizkuntzetan, obra bera esate baterako

19:00etan euskaraz egin behar genuelako eta ostean 22:00etan gazteleraz. Beraz, horretara ere ohituta gaude, horrela jokatu behar izan dugulako beti; gero, esan dezakete azentua dugula edo beste edozer dugula, baina tira...

—Zelakoa da barrutik ondo ezagutzen duzun pantaila txikiko mundua?

—Luze egiten zait (grabatzerako ordu-

na hor ere ez da hainbeste igo, antzeko. Produktorak beti kontu berarekin ari dira, aurrekontu nahikorik ez dutela; hori beti entzun behar izan dugu. Bakoitza bere aldetik ahalegintzen da, ea zenbat eska dezakeen pentsatu, eta gero guk ikusi eskaintzen digutenagatik lan egiteko prest gauden, edo ez... Autonomo lan guztiak bezalaxe, dagoenarekin dagoena.

“Antzerkian 25 urteotan ez da ezer igo; nik azken obra kobratu dut Txirri, Mirri eta Txiribitonekin bezalaxe”

an). Telebista zinea baino azkarragoa da, baina halere, ordu asko sartzen dira. Esaten didate: “zein ondo pasatzen duzuen!”, beno, bai, baina lana lana da, eta pagatzen badizute hori egiteagatik lana delako da, bestela, doan egingo genuke. Etorri eta ikusi, esaten dut nik, eta datozenetatik handik hamar ordutara “zein aspergarria!” entzuten dugu, hori ba! Zuk ordu batean aste bateko lana ikusten duzu, 10-12 orduko lana! Euskal Telebistan pixka bat arinago egiten dugu, baina Madrilen-eta, eta lan egitea suertatzen zaizun zuzendariaren arabera... tira, aurrera! orduak eta orduak...

—Azken aldian hedabideetan oihartzuna izan du telesailetak aktoreak gero eta baldintza txarragoetan lan egin behar duzuela, soldata baxuak, ordu asko sartu behar...

Askotan, benetan, adib. antzerkiarekin, gogoia joaten zaigu; jarraitzen dut, baina baldintzak askotan oso latzak dira. Gogorra da, askotan esaten dugu: bira bat egiteko, furgoia hartu, 700 km egin, funtzioa egin eta buelta beste horrenbeste kilometro... Horretarako, agian, 25 urte eduki behar ditugu! 54rekin furgoian hainbeste ordu pasatzea funtzio bat egiteko... Lankideekin giro ona dugulako, gustura goaz furgoian, baina hara heldu eta 40 lagun ikuslegoan; ez direlako enteratu edo hemengo talde bat inork ez duelako ezagutzen... Latza da! Azkenean, esaten dugu, “nik ezin dut”, fisikoki kristoren jipoia da, eta ez daukat adinik horrela ibiltzeko! Ez dakit zeinek izango duen... Hasten garenean ilusioarekin egiten dugu, 3 egun funtzio baka-

“Honetaz ezin da bizi esaterakoan, norbaitek “noski!”, noski ez! gu bizi izan garelako; gaur egun ezin da!”

—Hala da. Gero eta gehiago exijitzen dute, gero eta aurrekontu zorrotzagoak eta estuagoak dituztela diote... Antzerkian, esaterako, 25 urtetan ez da ezer-ezer igo, nik azkena kobratu dut *Txirri, Mirri eta Txiribitonekin* kobratzen nuen bezalaxe. Telesailetan apurka, bakoitzak berea egiten du eta ahal duen bezala, bai-

rra egiteko (bat hara joateko, bigarrenen funtzioa egin, eta hirugarrena bueltatzeko), eta guk hiru egunetatik bakarra kobratzen dugu, funtzioarena, eta beste dieta txikitxo batzuk, gutxi. Horiek dira baldintzak. Hilean lau bat funtzio egiteko, eta hori zortea duenak! Horretaz ezin da bizi! Baina hori esaten dugunean,

hainbatek erantzuten digu: “noski!”, Noski, ez. Ni bizi izan naizelako! Eta bizi izan garelako orain 20 urte; gaur egun ezin da! Ez dira emanaldiak egiten, eta ttantaka-ttantaka egiteko, “afizioz” esaten dena, egin egiten dugu, baina bestela...

—Zinerako ere hamaika lan egin dituzu; azken aldiko bi baino ez aipatzearren *Aupa, Etxebeste!* (Asier Altuna eta Telmo Esnal, 2005) eta estreinatu berri den *Zorion Perfektua* (Jabi Elortegi, 2009). Euskal zinea, halakorik egotekotan, aineratzeaz dago?

—(Barre ironikoa) Ea bada... ttantaka azaltzen dira. Zortea izan dut, nirekin akordatu direlako, eta hori loteria tokatzea da, asko garelako eta lan gutxi ateratzen direlako. Ama behar dutenean... Ezen ez da erraza nire adineko pertsonaiak aurkitzea; idazten duenak idazten duelako normalean jende gaztearentzat, batez ere emakumeentzat baldin bada.

—Euskal zinea, esan badaiteke, goranzko bidea hartzen dabil ala dena ke-darra da? Zinemaldiak estreinakoz sail propioa eskaini dio aurten, eta hori ere deigarri iruditzen zaigu.

—Ikusiko dugu, aurrerantzean, zer. Ea zer gertatzen den, zenbat produkzio egiten dituzten, industria mugitzen den... Ez naiz negatibik, gugatik, bakarrik ari, teknikoetaz-eta ere ari naiz; tekniko piloa dago hemen! Jende asko, eta produkzio oso gutxi! Zerbait mugituko baltz! Denontzako aukerak... Ea Xabi

Elortegiren pelikula honek nolako harrrera duen, ea ondo ateratzen den. Oso gustura aritu nintzen jendearekin, ematen du lan polita egin duela, hala esan didate, oraindik ez dudalako ikusteko aukera izan (filma estreinatu -hilak 25-baino lehenago egin zen elkarrizketa hau); bikoizketa egin behar genuela eta, baina nonbait egin omen dute, Madri-

“Ez da erraza nire adineko pertsonaiak topatzea; gazteentzako idazten dute, batez ere emakumea izanda”

len edo, nirekin kontatu gabe, beste norbaitek bikoiztu nau gazteleara; beno denak bikoiztu gaituzte, Ane (Igartiburu) izan ezik... Beraz, ez dakit. Eta Zinemaldian txoko bat egitearena, txoko bat izatearena, noski, ondo dago, baina ea gerora zelan funtzionatzen duen kontuak... Nahiko nuke dena ondo joatea, urtero zerbait egotea, eta bultzada bat eman diezaiotela! Halere, industria da hori ere, eta badakigu nola dagoen kontu hori... Ikusi beharko. Eta jende asko langabezian dago/gaude, jende asko zain ea zerbait agertzen den, lana! Lana da behar duguna...

—Erretiroan pentsatu al duzu noiz edo noiz? Hobe esanda, aktoreek erretiroan pentsa dezakezue?

—Ezin dugu. Ni behintzat bizitza osoan lanean aritu naiz, eta ez dut nahi-koa kotizatu, ez jubilatzeke adina.

Eguneko-eguneko gehitzen goazenez, ez hilabeteka, baizik funtzioko, ttantaka, bada nik behintzat ezingo nuke jubilatatu. Halere, nik landetxea daukat eta ikusiko dugu... oheak egiten jarraituko dut! Oso-oso zail ikusten dut. Esaten denean: “90 urte eta eszenatokian!”, nik pentsatzen dut: beste erremediorik ez dago-eta! Edo entzuten dugunean: “ak-

toreek ez dute jubilatatu nahi”, ez da horrela; ezin dute!

—Amaitzeko, aurreraterik baduzu, ba al duzu etorkizunerako proiekturik? Edota lan eskaintzarik?

—Ia ezer ere ez. Inoiz ez dut izaten, egia esan, egunean-egunean bizi naiz. Ideiatxo batzuk baditut, udaran landetxean zerbait idazten ibili naiz, ideia horiek lantzen eta orain hau lasaiago dagoenez, berriro hartuko ditut buelta pare bat emateko. Baina, hori nire kabuz gauzak egiten, lehen esan dizudan bezala, gure kabuz ere mugitu beharra daukagu, bestela... Horrez gain, lan eskaintza aldetik, badira proposamen batzuk, badaukat eskaintza-ren bat, baina sinatu arte nik ez dut ezer kontatzen, ezta horrekin kontatzen ere. Esan, gauza asko esaten direlako, baina gero sinatu... Berriro nire kasa hasiko naiz, eta gero datorrena datorrela. ○



zure **diru-laguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian



Hurrengora arte, Getxophoto!

III. GETXOPHOTO Nazioarteko Argazki Jaialdiak laster esango du “hurrengo urtera arte”, urriaren 11n itxiko ditu-eta erakusleku denak: erakusleihoak, karpak, paretak, etxaurreak, merkatuak, plazak, metro geltokiak, kontainer-ontzia e.a. Oraindino badago *Asiako fikzioak* ezagutzeko aukera, oster, txoko honetan orain artekoak batu gura izan ditugu, eta izandako eta gertatuko guztien aukeraketa laburra duzu hauxe; besteak beste, jaialdiaren backstage-aren, ibilbideen, Bertsophotoren, berbaldien, erakusketen, lanen eta abar luzearen isla baino ez dena.

Argazkiak: **GETXOPHOTO**



[fotografia]





[fotografia]





[fotografia]





I

Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



GARKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Frantziar zinea Leioan

Perseo Cineforumak zine frantseseko lau film eskainiko ditu **urriko martitzenetan**



La fille coupée en deux filmako irudia

Guardasolen edo aterkien kolore ilunak kaleak margozten hasi diren hone-tan, eta krisiaren izenean gure buruak bestelakorik erabakitzen behartzen ez gaituen heinean, zine aretora itzultzeko garaia heldu da. Hala, hango eta hemengo zine aretoen eskaintzak, komertziala zein alternatiboa, ugaltzen hasten diren urtaroa hasi da. Film komertzialen zerrenda luzea edozein egunkari-tan irakurtzeko aukera zabala dauka-zunez, eskaintza berezituagoan ipini dugu arreta, Leioako Perseo Cineforu-mak antolatzen dituen zine zikloetan, hain zuzen ere.

Hilero-hilero Perseo taldekoek gai bat aukeratu eta horren gaineko lauz-pabost filmen emanaldiak eskainiko dituzte; pelikulak jatorria, generoa, zu-zendaria eta abarren arabera multzoka-tu dituzte. Emanaldiak martitzenetan izango dira, Kultur Leioako auditoriu-men arrastiko 20:00etan eta sarrerak 2 eurotan salduko dira.

Hil honetarako aukeratu duten

gaia jatorria izan da, zine frantziarra hain zuzen, hau da Frantziak ekoitzita-ko lanak emango dituzte. Horren albo-tik, eskainiko dituzten pelikulak hu-rrengoak izango dira: hilaren 6an *Il y a longtemps que je t'aime* ("Orain dela asko maite zaitut"; Zuz.: Philippe Claudel; 2008), hilaren 13an *Coeurs* ("Bihotzak", gaztelerara *Asuntos priva-*

«Il y a longtemps que te je t'aime; Coeurs; La fille coupée en deux eta Le premier jour du reste de ta vie»

dos en lugares publicos izenburuagaz itzuli zuten; Zuz.: Alain Resnais; Frantzia eta Italia, 2006), hilaren 20an *La fille coupée en deux* ("Erdibitutako neska", Zuz.: Claude Chabrol; Frantzia eta Alemania, 2007) eta hilaren 27an *Le premier jour du reste de ta vie* ("Zure bizitzako gainerako egunen lehenen-go", Zuz.: Rémi Bezançon; 2008).

Azaroko zine zikloak emakume te-matika jarraituko duela iragarri dute. ○

IV. BUM jaialdia Bilbon

Urria eta azaroa bitartean **hip-hop, funk, reggae edota jazzeko** bost kontzertu



Sizzla Kalonji reggae kantari jamaikar ezaguna

Bilbao Urban Musikaldiaren (BUM) laugarren ekitaldiak aldaketak dakartza aurrean, horietako bat da aurrekoetan legez kontzertuak aste akabu bakar baterako antolatu ordez, oraingoan ia bi hileko tartean sakabanatuko dituztela jaialdia osatuko duten bost kontzertuak. Lehen emanaldia folk-indie esparruan diharduen Melissa Laveaux sustrai haitiarreko kantari kanadarrak eskainiko du (hilak 2, 21:00; Kafe Antzokia), eta soul, jazz, bossa nova eta kreole erritmoz jantziko du BUM jaialdia. Bigarren kontzertuan (hilak 4, Kafe Antzokia) Kase.O-k (Vio-

ladores del verso taldekoa) jardungo du alboan Jazz Magnetismeko jazzlariak dituela rap, blues eta funk doinuak uztartzeko. Hirugarren ikuskizuna Sizzla Kalonji reggae kantari jamaikar ezagunak emango du (hilak 29; Santana 27 aretoa) The Firehouse Crew taldea lagun duela. Laugarren saioa (azaroak 6; Kafe Antzokia) Gang Starr hip-hop talde estatubatuarreko kide Guru kantariak gidatuko du. Eta azken kontzertuko (azaroak 26, Kafe Antzokia) izarra Jamaikako King Yellowman izango da, reggaea zaharbarritu zuenetakoa eta jaialdia dancehallera hurbilduko duena. ○

MTV Europe > We are Standard

Orain dela zazpi bat urte Algortako Riff entsegu lokaletan jotzen hasitako We are Standard taldeak ziztu bizian egin du goranzko arrakastaren ibilbidea azkeneko urteotan. Ibilaldi oparoaren erakusle da talde getxoztarrak Europako MTV musika sariketa ezagunerako jaso duen izendapena. Espainiako Artista Onena saria lortzeko Nena Daconte, Fangoria, Macaco eta Russian Girl taldeakaz lehiatuko da Juan Escribano, Deu Txakartegi, Jon Agirrezabalaga, D. W. Farrigdon eta Letamendiak osatzen duten taldea. Sariketako irabazleen izena azaroaren 5ean jakinaraziko dute Berlinen egingo den jaialdian. Getxoztarren alde zure bozka emateko aukera ere badago (behean agertzen den bigarren helbidea).

Informazio gehiago:
www.wearestandard.net
www.ema.mtv.es/votar

disco barria > Barricada

Hil honetako 20rako iragarri du Iruñeko taldeak lan barria kalean egotea. *La tierra esta sorda* diskoa 18 abestik osatu dute eta gerra zibiliak eragindako sufrimenduaz dihardute letrek. Kantuak oinarritzen diren historien barri emoten duen 200dik gora orriko liburuak ere antondu dute Barricadako kideek. Bestalde, nahasketak eta masterizazio lanak Finlandian egin dituzte oraingoan eta kantu "kañeroakaz" batera akustikoak ere badirela aurreratu dute.

Informazio gehiago:
www.barricada.com.es

diskoak

Zubia
 Mikel Urdangarin
 Baga Biga




Urriaren 1ean argitaratu barri du azken lana zornotzarrek. Soinu etereo, atmosferiko eta sentsualez beteta ei dator, "une gozoek noizbehinka indarra hartzen dute eta intentsitatea agerian ikusten da". Baina ba omen dira pop joerako pasarteak ere. Uztailan grabatu zuen Mikel F. Krutzaga soinu teknikariaren laguntzagaz.

Hegatzak dakar ekaitza
 Malenkonja
 Gor



Oñatiko taldearen lehen diskoa duzu haxe. Pop-rock estiloko lana da eta sei taldekide gazteen freskotasuna eta indarra biltzen dute hamar kantuek. Euren hitzetan, Hong Konggo tximeleta baten hegazkadak New Yorken ekaitza sor dezakeen bezala, diskoko kantek entzulearengan zerbait berezia sortuko dute.

2
 Kasu!
 Musikherria



Rock, hip-hop eta beste hainbat estilo lantzen dituzte iruindarrek. Gai sozialak eta politikoa batzen dituzten 15 abestik osatzen dute bigarren diskoa. Elkarrengandik oso desberdinak dira, swing pasarteetatik metal-rap tarteetara, melodiarik leku eginez beste zenbaitetan. Taldeak azken urtean bizi izan dituen une zailak eta politik biltzen ditu.



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uribefm
107.8
Gorliz Irratia

[liburuak]

Haur literaturan barriak


Juan Kruz Igerabide, Leire Bilbao, Rai Bueno eta Katixa Agirreren liburu bana

Ongietorria egin barri digun udagoienarako literatur aukera barriak merkaturatu ditu Elkar argitaletxeak haurrentzat. Umeentzako euskal literaturaren esparruan non aukeratu badago ere, ekarpen barrietarako lekua eta premia bada oraindino ere, eta gainera, sarritan barritasunak erakargarritasun berezia izan ohi duenez... Edozer zaio eta lagungarri irakurzaletasunari!

Hala, oraingoan lau ipuin liburu barri plazaratu ditu euskal argitaletxe boteretsuak, hurrenez hurren: Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) idatzi eta Elena Odriozolaren marrazkiak dituen *Printzesa Begi-zulo*, Rai Bueno ipuin

«Igerabiderena izan ezik, gainontzekoak 5-8 urte bitartekoei zuzenduak»

kontalariak paperera ekarri duen *Fatima*, izen bereko herri ipuinean oinarritutako istorioa, Iratz Inziartek marrazkiz atundu duena, Patxi Gallegok ilustraturiko Leire Bilbaoren (Ondarra, 1978) laugarren lana, *Martin, egon geld*i eta Eider Eibarrek marrazkiz osatu duen Katixa Agirre (Gasteiz, 1981) idazle gaztearen *Ez naiz sirena bat, eta zer?* liburuak.



Juan Kruz Igerabide (Argazkilaria: ZaldiEro)

Azkeneko lan hori, Elkarren *Eta zer?* bildumako zerrenda osatzera dator, eta argitaletxeak 2000n abian ipinitako sailaren helburuari jarraitzen dio: trataera pedagogikoa eta ironia apur bat izan dezaketen gaiak lantzea, desberdintsunaren aldeko aldarrikapena, edota "gatazkatsuek" izan daitezkeen gaiei irtenbide naturala eskaintzea.

Igerabideren liburuak izan ezik (8 urtetik gora), gainontzekoak 5-8 urte bitarteko umei begirakoak dira eta laurek 9 euro baino gutxiagoko prezioa dute. ○

Informazio gehiago: www.elkarlanean.com

liburuak



Alferrikaldia

Thomas Bernhard
Alberdania-Elkar

Literatura Unibertsala bildumaren barruan Bernharden eleberria euskaratu du Ibon Uribarrik. Hiru musikariren arteko harremanek osatzen dute mamia. Salzburg-eko Mozarteum eskolan ezagutu eta gertakizun erabakigarria biziko dute elkarregaz.



Azken egunak Gandiagarekin
Joxe Azurmendi
Elkar

Bitoriano Gandiagarekin izandako elkarriketa eta horren gaineko hausnarketa oparitu digu Azurmendik. Lan pertsonala da, adiskide minak baitziren filosofoa eta poeta. Azken horren bizitza errepasatzeaz gain, sinesmenez berba egingo dute.

[kirola]

Izerditzeko ere aldatz gora

Andrazkoen eta gizonezkoen kirol jarduera aztertu dute Getxon



Ez da makala, ez, oraindino ere egiteko dagoena (duguna?!)

Ez dira gutxi izan orrialde hau bete duten goi mailako jardueretan edota profesionaletan dihartuen eskualdeko kirolariak zein kirol taldeak; eta askotan, amorrarazten bagaitu ere, tamalez, oraindino askori harridura handia sortzen dion “andrazko/emakumezko” ize-nondoa ipini behar izaten diegu alboan. Halere, goi mailako kirolari emakumezkoen auziaz gainera, bada beste kontu bat, oro har kirola egiten duten andrazkoen kopuruarena. Ez da gaitza antzematen, kopurua gizonezkoena baino baxuagoa dela; ez gaitza antzematen horren arrazoi nagusietakoa dela beste batzuen ardurakaz izerdia bota behar izaten dutela.

Kontu horregaz arduratuta, Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta Getxo Kirolak erakundeak Getxoko emakumeen eta gizonen kirol jardueraren gaineko azterketa egin dute (Emakundek diruz lagunduta). Udalerriko kirol sistemako lau esparru ikertu dituzte: Getxo Kirolak eskaintza eta beharrak,

partaidetza-kirola, lehiaketa-kirola eta eskola-kirola. Jasotako datuen artean hauek daude: herritarren %29,7 Getxo Kirolak bazkide da, horien %46 dira andrazkoak; emakumeak dira batez ere seme-alabak kirol jardueretara laguntzen dituztenak (zain egoten direnez, Udalak tarte horretan kirola egiteko aukera eskaini gura die); herriko 62 kirol klubeta-

«Eskola-kiroleko neskatoek, oro har, saskibaloian eta boleibolean dihardute»

tik 32k dute informazioa eskuragarri, 6k baino ez dute sexuaren araberako informazioa zehazten (datuak hobeto ezagutzeko, informatika programa bat prestatuko dute); eskola-kirolaren inguruan (datu falta ei dago), 841 eskola-lizentziaren %16 baino ez dira neskatoenak eta oro har, saskibaloian eta boleibolean dihardute (azken horretan, mutikoak baino gehiago); “estereotipikoki andrazkoenak” diren jarduerak antzeman dituzte, dantza, yoga eta pilates, esaterako. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Josune eta Paula Alegria Novelle > diseinatzaileak

“Ez ditugu egiten ohiko emaztegai jantziak, *hippie* kutsua daukate, artesanalak dira”

Zaila ei da negozio barria abiatzea egun, baina gai bitxia aukeratu eta denda zabaltzeko zuten orain hiru urte getxoztar biek, Paula eta Josune Alegria Novelle ahizpek. Emaztegaientzako jantziak egiten dituzte, baina ez edozelangoak. Jantzi klasikoetatik desberdinak dira, bereziagoak eta eskusiboak. *Vogue* aldizkari ospetsuan atera dira uda honetan.

—Josune eta Paula, Getxoko ahizpa bi, emakumeentzako ezkon jantziak egiten dituzue, berezko marka sortu duzue, eta auzoan gainera, erronka handia, ezta?

—Gure lagunak ezkontzen hasi eta ez zuten topatzen ohikoetatik apur bat desberdinagoak ziren jantziak, bereziagoak. Biok ikasi dugu Arte Ederak, moda diseinuaren arlotik batek eta papergintza arlotik besteak. Beraz, lagunei jantziak egiten hasi gintzaizkien. Gero eta pertsona gehiagok eskatu zigun jantzia egiteko, horrela otu zitzaigun ideia emaztegaientzako jantzi denda zabaltzeko.

—Desberdinak zergatik?

—Hemen ez dituzte topatuko jantzi klasikoak. *Hippie* kutsua daukate, ehun naturalagoak erabiltzen ditugu; artisau-ehunak bilatzen ditugu. Getxon bertan egiten ditugu goitik behera, ez ditugu inora bidaltzen.

—Eredu finkoak dituzue?

—Baditugu eredu jakin batzuk, baina bakoitzari egokitzen dizkiogu gero. Jantzia probatu eta aldaketak eska ditzake, finean berezko trajea sortuz. Norbere gustukoa, bere neurrira egiten dugu; modelo eskusiboak sortzen ditugu azken batean. Gainera, osagarriak ere egiten dizkiogu jantziagaz lotuta, gura izanez



Maidagan kaleko 3.ean daukate Novelle emaztegaientzako jantzi denda

gero: buruko apaingarriak, paparrekoak, lore-sortak... Beloa eta xala ere berari egokitzen dizkiogu.

—Gonbidapenak ere zuek egiten dituzue?

—Bai, hauek ere desberdinak, estilo berari jarraituz. Eskuz egindakoak modukoak dira, artisau-paperezkoak.

—Eta zelan doakizue, dendak ez du-eta

komertziala. Azkorriko hondartzara, Galleara edota eskoletara doazenak aurretik igarotzen dira.

—Hiru urte darozue dagoeneko.

—Bai, aurren apur bat arraroa izan da, krisia igarri da, baina denda ondo doa orokorrean.

—Uda honetan gainera, *Vogue* aldizkari ospetsuan atera dira zuen diseinuak,

“Eredu batzuk ditugu, baina aldaketak eska daitezke, berezko trajea sortuz; jantzi eskusiboak sortzen ditugu azken batean”

ematen jendea hurreratzeko erraza, herriko erdigunetik urrun, hemen Maidaganen.

—Ahoz ahokoak asko funtzionatzen du hemen. Pozik dagoen emaztegaia beste bat erakartzen du. Gainera, jendearen arreta erakartzen du dendak, esanagatik hain zuzen ere, ingurua ez delako

garrantzitsua eta ohorea izango da...

—Zehazki *Vogue* emaztegaia-en atera gara. Eurekaz harremanetan jarri ginen, gure jantziak aurkeztu eta lan filosofia kontatu genien. Gure ideiak desberdinak izanagatik, asko erakarri zituen eta aldizkarian ateratzea proposatu ziguten. Jantzi batzuk eskatu zizkiguten errepor-

tajea ateratzeko. Haurren jantziek ere erakarri zituzten, eurentzako ere josten dugu eta. Emaztegaiekin moduan, euren jantziak ere desberdinak dira, ez dira ohiko ezkontza dendetan topatzen direnak. Jantziak, gonbidapenak, oparixoak, tarta gainean jartzeko panpinak... guztiak erakarri zituen, arlo guztiak lantzen ditugulako eta guztia guk egina delako, artesanala. Eta gu pozarren, noski! —Publizitaterako pizgarria izango da gainera.

—Bai, kanpoko jendea ere erakartzen du. Madriletik eta hasi zaizkigu etortzen jantziak ikustera, asko mugitzen den jendea batik bat. Webgunea ere oso garrantzitsua da arlo horretan, *www.novelle.es* da gure helbide elektronikoa.

—Feretara joaten hasi zarete?

—Orain gutxi egon gara jaialdi batean

ehunak eta materiala erosten. Hilabete amaieran, barriz, *Exponovias* ferian parte hartuko dugu, Barakaldoko BEC aretoan. Lehenbizikoz joango gara. Feria ikusi gura duenak hemendik pasa eta gonbidapenak eskatu baino ez dauka, hartara ez du-eta ordaindu beharrik izango.

—Orain arte ez duzue parte hartu?

“Ez dugu asmorik Getxotik ateratzeko, bertan geratu eta guzti-guztia hemen egin gura dugu”

—Ez, orain arte errezeloa eduki dugu joateko, baina finean, erakustokia da Exponovias. Ea zelan ateratzen den...

—Biok bakarrik egiten duzue dena?

—Ez, jostun bat ere badaukagu, tailerrean egon ohi dena lanean. Izan ere, lan handia da birentzako bakarrik. Tailerra

ez dago hemen, dendan leku gutxi daukagu eta, baina Getxon dago. Bezeroei arreta eskaintzeko egoten gara gu biak.

—Negozioa horren ondo joanda, zabaltzeko asmorik daukazue?

—Beno, lokal handiagoa edukitzea gus-tuko genuke, hau oso txikia da eta, baina jendeagaz zuzeneko harremana gus-

tuko dugu eta negozio handia bilakatuz gero, hori gal liteke. Halere, etorkizunean beste zerbait bilatzeko asmoa badaukagu, espazio apur bat gehiago gura genuke eta. Baina ez dugu asmorik Getxotik ateratzeko, bertan geratu eta guzti-guztia hemen egin gura dugu. ○

IRAGARKI LABURRAK

berria!

Bidali testua publiuk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo deitu **94 491 13 37** telefonora.

Etxebizitza	Motorra	Lokalak	Lana	Irakaskuntza	Denetarik
Salgai	Salgai	Salgai	Lan bila	Eskaerak	Salgai/Erosgai
Errentan		Errentan	Langile bila	Eskaintzak	Eman
Konpartitzeko					Galdu/Aurkitu
Garajea					Harremanak
					Bestelakoak

* Etxebizitza, motorra, lokalak, langile bila: 5 ale 10 euro.

* Lan bila, galdu, aurkitu, harremanak, trukeak: 5 ale doan.

* Doako iragarkietan 13 hitz onartuko dira gehienez.

Iñigo Fdez. de Martikorena > Santa Eugenia plaza

“Bertan bizi nituen sokamuturrak...
desagertutako murrura igota, jakina”



“Bonbiri, herriko jai batzordeko kide zenduari, plazako frontoia eskaini genion”

Itzubaltzetako Santa Eugenia plaza gogoko dut. Agian, txikitan, gozokiak erosteko aukera izan nuelako bertako kioskoan, Sabino aititek emandako sosen bat zela medio. Besteren batean gurasoek txurro-dendara eraman izanak errua izango du. Baina jada ez dago kioskorik, ezta txurro-dendarik ere.

Apika, aitite gudariaren historia istorioak baino ez zirelakoan nengoelako izango da, edo geroago bere garaikoek esandakoak eta bi berresteagatik zein okerragoak kontatzeagatik. Tartean, lur horietan, 1937ko apirilko bonbardake-

taren batean eztanda egin zuen gizonarena, alferrik gurdi baten azpian hegazkinengandik babesten saiatu zena.

Baliteke, Luis Maria Zuluaga "Zulu", gure auzokide eta errefuxiatua, Venezuelan hil zenetik berriki 15 urte igaro direlako, herritarrok aspaldi errotulua jarri geniola plazan. Era berean, "Bonbi" herriko jai batzordeko kide zenduari plazako frontoia eskaini genion. Baina, errotulua eta frontoia kendu zituen Udalak, Kultur Etxeko karpen neurriira txikitutako plaza honetan.

BBVA baino lehen, Nikolasen taber-

na izan zelako, Kolas plaza izena hartu zuen gurutzebidearekin batera Itzubaltzetako bihotza delako gustatzen zait plaza. Bertan, bizi nituen sokamuturrak... desagertutako murrura igota, jakina... Bertan ere, denetarik ikusi dut: hamaika kultur ekitaldi; makina bat aldarrikapenen aldeko jaialdi eta protestak...; mota guztietako sheriff-ak; Ibarretxe...; baina batez ere, herriko jaiak, inauteriak eta herria girotzen duen ekitaldi multzoa. Erantzuleak, jai batzordea, goian, kultur etxean, batzen dira asteartero, 20:00etan, atea irekita utzi dizutela. ○

Toponimoa > **Santa Eugenia**

Santa Eugenia (Fadura):

1898an, Gobela ibaiaren gainean zegoen zubiaren egoeraz kexuka aritu ziren bertakoak; zubia konpontzeko eskatzen zuten. Azkenean, zubi barria eraikitzea erabaki zuten agintariek. III. mendeko Santa Eugenia Alexandriako monasterio batean gizon jantzita sartu omen zen, eta denboragaz abadea izatera iritsi. Iruzurra emakume bat beragaz maitemindu eta, hisiaz, bortxatzen saiatzea leporatu zionean jakin omen zen. Geroago Erromara joan omen zen, eta han martiritzatuta hil. Bere eguna abenduaren 25ean ospatzen da.

Herbolario Las Arenas

Ama lurak emandakoa gure mahaletan



Silvia Ramos, Areetan

Jendarteak geroz eta argiago dauka gorputza eta arima zaindu behar direla. Hori esan digu behintzat Silvia Ramos, Areetan zabaldu barri duten *El Herbolario de Las Arenas* dendako jabeak. Bere amaginarrebaren laguntzagaz ipini du martxan dendan: *"Hemen inguruan ez dago horrelako eskaintza duen ezer; amaginarrebak denda dauka Bilbon eta produktu naturalen mundua ezagutzen nuen ez, animatu nintzen"*. Orain arte, jendeak oso ondo erantzun du: *"Ez genekien zelako harrera egingo ziguten Areetan; Bilbon honelako produktuak kontsumitzeko kultura oso zabaldua dago eta, dirudienez, hemen ere bai"*.

Denda handia da eta horregatik, denetarik eskaintzeko aukera ematen du. Alde batetik, elikagaiak dituzte: zeliakontzako produktuak, azukre bakoak,

integralak, biologikoak eta makrobiotikoak. Bestalde, medikuntza naturala gurago duenarentzat, mota guztietako belarrak dituzte: *"Orokorrean, indartsu eta ondo sentitzeko zerbaiten bila etortzen dira bezeroak, erregina-jelea, bitaminak, mineralak eta antzeko produktuak, medikuntza prebentiboa baita hori guztia"*. Gainera, alde zuretik ordua eskatuz gero, dietetika aholkularitza zerbitzua eta naturopataren kontsulta zerbitzua ere badaukate, biak doan. Ramosi medikuntza eta elikadura naturalaren inguruan galdetu diogu: *"Badago jende asko medikamendu naturalak hartzen dituen hasieratik; beste batzuk, ohikoakaz hobeto sentitzen ez direla ikusi eta aldatzea erabakitzen dute"*. ○

Las Mercedes 30 atzealdea, AREETA
Tf. 94 480 78 80

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Etxakina. Gobeia eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaletan!!

Alangobarri 10, ALGORTA

Tf. 94 491 02 93

Uribefm 107.8

fm

Garliz Irratia

GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Teletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18

48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROLO PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Oraindino loteria irabaziko duzula uste duzu? Ai, koitadua! Hobe duzu beste diru iturriren bat bilatu. Azkenaldian gauza arraroak egiten zabilta, eta inguruko denak harrituta daukazu. Zer ezkututzen duzu?

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Telefonoaren faktura ikustean beldurtuta geratu zara; hainbeste berba egin aurretik pentsatu behar zenuen. Haserretzeko arrazoiak zenituen arren, hainbeste denbora berba egin barik egotea ez al da gehiegi?

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zeure arazoak zaharkituak daukazu; besteetaz kezkatzen hasten bazara, zoraturako zara. Lagunak ados ez egon arren, zuri halako bixikeriak gustatzen bazaizkizu, aurrera!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Irakurtzea gustatzen zaizu, baina gogoko ez duzun libururen bat hartuz gero, ezin amaituta ibiltzen zara. Zu zoriotsu zauden guztietan zerbait arraroa gertatzen da inguruan; beti horrela ote?

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Beroa egiten duenean kexu, eta hotza egiten duenean ere bai. Zer behar duzu gustura egoteko? Gainera, haserretzen zarenean gauza asko esaten dituzu. Hobe duzu bi aldiz pentsatu, bestela damutu egingo zaizu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gauetan telebista ikusten ordu txikiak arte gelditzen zara; horren lo gutxi egin da, zelan joaten zara lanera? Erabat nazkatuta zaude, eta alde egiteko gogo ikaragarria daukazu; apur bat ixaronez gero, gauzak hobetuko dira.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Negar egiteko gogo daukazula? Zergatik ez duzu, bada, egin behar? Ona dela diote. Etxean bizi zinenen gurasoengatik kezkatzen zinen; orain, bakarrik bizi zara, hobeto zaude?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Oporretatik itzuli zinenetik ia hilabete igaro da, eta oraindino oroimenez zabilta; ondo pasa zenuen, ezta? Bada, lasai hartu, hurrengo oporraldia urrun daukazu-eta.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Egunak joan eta egunak etorri beti gauza bera egiteaz aspertuta zaude; abentura barriak izateko gogoz zaude, ezta? Orain arte diruz urri ibili zaren arren, laster gauzak erabat aldatuko dira; alde horretatik, garai ona datorkizu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Komeni zaienean bakarrik deitzen dizute, baina zer uste dute? Ez utzi haiek gura duten guztia egiten. Hainbeste denbora elkar ikusi barik egon ostean, ez dakizu zer esango diozun; hori aurretik pentsatzea zaila da.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Lar berba egiten duzu, eta besteei ez diezu ahoa irekitzeko aukerarik ere ematen: azkenean gogaitu egingo dira. Sukaldaritza ez zaizu batere gustatzen; hala ere, lehenago edo geroago ikasi beharra daukazu.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Ondo egonez arren, hasieran ez zenion garrantziarik eman; sendatzen ez zarenez, medikuarenera jo beharko zenuke. Ahoa irekitzen duzun bakoitzean jende guztia barrez lehertzen da; ez dakizu serio egotea zer den.

KOSKA
irratia 108 fm


www.koskairratia.com



HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUIN:

- [1] Animalia konkordun.
 [2] Ogi txiki biribilak.
 [3] Trebe, abil. Huts.
 [4] Pare bat. Musika nota.
 [5] Jarri, ipini.
 [6] Piztlak harrapatzeko prestatzen den soka urka-bilurduna.



GOITIK BEHERA:

- [1] Triste, ilun.
 [2] Abadea, elizgizona.
 [3] Erromatarrez, mila eta bi. Nor pluralean.
 [4] Zuhaitza arantzatsu.
 [5] Musika nota. Zoro.
 [6] Ukapen, ezezko. Kasik.



	1	2	3	4	5	6
1						
2						
3						
4						
5						
6						



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein herrialdeko zinea
 ekarriko digu urrian
 Leioako Perseo
 Cineforumak ?

> Aurrekoaren erantzuna: Txalaparta

> Irabazlea: **Amaia Bilbao***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*Zein arokoak dira ale
 honetako albumeko
 argazkietako pertsonaiak?*

- **XXVI. mendea**
- **Erdi Aroa**
- **Paleolitoa**

> Aurrekoaren erantzuna: Matxinsaltoa

> Irabazlea: **Amaia Bilbao***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Usategi
 kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
 Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA

La Gusana
 liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12

lagusana



JOAQUIN ATXAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Areetako Accion Catolica futbol taldea, 1947

Ibaiondon, Arenas futbol taldearen zelaian eginda dago goiko argazkia, Areetan auzoko taldeen artean jokatzeko txapelketa batean. *Accion Catolica*-ko lagunak azaltzen dira goian. Mesedeetako Ama elizako gazte hauek gaur egun Andres Isasi Musika Eskola dagoen leku berean zeukaten topalekua. Han elkartzen ziren, abadeen zaintzapean, billarrean egiteko, Areetako jaiak antolatzeko e.a.

Zutunik: Joaquin Atxa, Lauzirika (Sarasua), Moises Perez, Pedro Sanchez, Carmelo Isasi, Txema Zarraga, Jose Miguel de la Rica (Bele), Luis Escala, Angel Blanco.

Makurtuta: Ignacio Zalbidea, Urkijo, Juan Mari Ezkurdia, Carlos Egiraun.

JOSEBA SOLOZABAL > telebista eta irrati aurkezlea

“Gustuko nuke pilula bat hartu, gura nukeena egin ahal izateko”

Testua: **Zuberoa Iturburu**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Joseba Solozabal.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Atame-n, askatzeko gero; Pedro Almodovarrena da.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Oso txarto pasako nuke, beste gauzarik ez dakit egiten eta.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Independizatzeko gogoia. Bakarrik zeinen ondo biziko nintzatekeen pentsatzen nuen, heldua izan gura nuelako, bakarrik bizi eta lana eduki...

Badaukazu ohitura txarren bat?

Gehiegi.

Aitor dezakezun bizio bat.

Jendea ezagutzea oso gustuko dut, eta bizioa da hori, orokorrean arazoak dakartza eta.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Bidaiak errepikatu ez, baina zor bat daukat New York hiriagaz, izugarri gustatuko litzaidake hara joatea.

Zein da zure ametsetako bat?

Amets asko egiten dut, lotan zein iratzarrita. Baina gustuko nuke pilula bat hartu ahal izatea, gura nukeena egin eta izan ahal izateko.

Eguna ala gaua?

Gaua, galdetzea ere!

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Asko, oso gustuko dudalako hondartza, mendia, hortik galtzea... Beno, Bilbok lilurutzen nau, hainbeste gauza on eman dit bizitzan eta hainbeste une zoriontsu, azken aldian batez ere! ○

LABURREAN — Ezaguna da oso Bilbo inguruan Joseba Solozabal kazetaria, TeleBilbao katean egiten duen lanagatik batez ere. *La Kapital* saioa aurkezten eta zuzentzen du, baina Radio Nervion irratiari hasi zen kazetaritzan. Gaur egun ere *Vaya domingo!* saioa aurkezten du katea horretan domeka goizetan, baina ipurterrea izanik beti ditu hainbat egitasmo esku artean. Uda honetan guztien ahotan ibili da Bilboko Aste Nagusiko pregoilari izan delako. Gogorra eta konplikatu izan ei da, baina pozarren dago bizitakoagaz, jendeak eskaini dion maitasunagaz eta gertatutako gauza onakaz; urte oso berezia, hainbat arrazoi medio, eta esperientzia ahaztezina, aitortu duenez.



NAZIOARTEKO ARGAZKI JAIALDIA. URRIAK11 ARTE
FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOTOGRAFIA. HASTA 11 OCTUBRE

with Medici Foundation



with Medici Foundation



with Medici Foundation



GETXO '09

XXVII ANTZERKI JARDUNALDIAK JORNADAS DE TEATRO

URRIAK 9-24 OCTUBRE

